

**FRANTZISKO IGNAZIO
LARDIZABAL URRETABIZKAIAREN
II. MENDEURRENA**

Zaldibia, 2006-VI-30

FRANTZISKO IGNAZIO LARDIZABALEN II. MENDEURRENA

*Patxi Aierbe,
Zaldibiako alkatea*

Euskaltzainok, herritarrok, eta ekitaldi honetara etorri zareten guztioi, arratsalde on eta ongi etorri denoi.

Francisco Ignacio Lardizabal Zaldibian jaio zen orain dela 200 urte. Orduko Zaldibian 19 kale-etxe ziren eta 91 baserri. Orduan ere baziren Zaldibian bertan sortu ez arren, bertan bizitzen jarri zirenak: lardizabaltarrak, konparazio baterako. Litekeena da aurrena, haren osaba etortzea Zaldibiara, bertoko elizan apaiz zelako.

Lardizabalen garaian ere egoera gogorrek tokatu ziren Zaldibian eta Euskal Herrian. Zaldibitar bezala, aurren-aurrena, azpimarratzekoa da zer nolako lanak egin zituen euskal kulturaren alde. Eta ez, horiek guztiak, jatorri aberatsekoa izanda, haren ikasketa guztiak beka eta laguntzekin egin baitzituen. Ez, ordukoak ere ez ziren garai onak kultura eta euskararentzat. Besteak beste, gure herria ere astindu zuten gerra karlistengatik. Lardizabalen osaba apaizak berak ere mendira egin zuen karlistadetan, eta haren lekua libre geratu zenean hartu zuen kargu Francisco Ignacio Lardizabalek.

Egoera hartan, euskaraz idazteko hartu zituen lanak ez dira nolana hikoak. Bere kabuz ikasi zuena beste batzuei jakinarazteko ahaleaginean aritu zen, haren *Gramatikan* ikusten den bezala. Bestalde, haren *Testamentu zar eta berrico condairak* herritarren hizkuntza maila ezagutu eta jasotzeko interes handia erakusten du. Ez zen alferrik izan liburu hori orduko best-sellerra, euskaraz.

Euskararen egitura ere aztertu eta zabaldu nahi izan zuen bere *Gramatica Vascongada* liburuarekin batera. Orduko jende jantzi, dotore eta ustez jakintsuak euskararekiko errespetu falta handia zuen. Ez da ahaztu behar Larra-mendi euskaltzalearen gramatikak *El Imposible Vencido* izenburua daramala. Errespetu hori irabazteko ere idatzi zuen Lardizabalek, eta euskararekiko ardura horren lekukoa utzi ezinezkoa da, kanpotarrak, erdaldunak gure herrira iristen jarraitzen duten bitartean.

Lardizabal 49 urterekin hil zen, eta lan handia utziko zuen egin gabe, bere bizimodu labur horretan oso idazle emankorra izan zenez. Esan dudan bezala, Lardizabal 49 urterekin hil zen, haren garaian ere, oso kutsakorra zen izurritea zabaldu zelako Zaldibian.

Gaur, hemen bildutakooi eta euskaldun guztiei, Lardizabalen jaiotza eta haren bizitzaren inguruan hausnartzeko gonbidapena egin nahi dizuet Zaldibiako alkate naizen partetik. Haren lanak irakurriz, gure orainaz pentsatzeko aukera izango dugulakoan. Zinez, askotan, errazagoa baita gure Herriari buruz, gure kulturari buruz, gizakioi buruz, pentsatzea eta hausnartzea, lehenari begira, etorkizunean eman beharreko urratsen arrastoak iraganean aurkitzea baino.

LARDIZABALEN 200. URTEURRENA

*Andres M. Urrutia,
euskaltzainburua*

Agur-hitzak

Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia,
Zaldibiako alkate jauna,
Euskaltzainkideak,
Jaun-andreak.

Arratsalde on!

Lehendabizi, mila esker Zaldibiako herriari, Euskaltzaindia hartzearren. Orobat mila esker hona hurreratu zareten guztioi.

Lardizabalen 200. urteurrena ospatzen du gaur Euskaltzaindiak, Zaldibiako herriarekin batera. Lardizabalen eragina ezaguna da euskal letretan. Horren ondorenez, zuen aurrean azpimarratu behar dut Lardizabal, gure aurrekoa izatearekin batera, guretzat aurrelaria ere badela, aldiotan euskararen «normalizazio-bide» deitzen dugun horretan. Horra hor, esanaren lekuko, haren *Testamentu zar eta berrico condaira* eta *Gramatika*. Bata nahiz bestea, euskara ardatz, hizkuntzaren muinari zein erabilerari adi-adi. Aspaldiko zaigu Lardizabalen bizitza. Hur-hurrekoa, haren mezua, euskararen ikerketa, babeste eta sustatze-gorabeheretan.

Ahalegin berbera du Euskaltzaindiak, sorreratik bertatik, eta ahalegin horri eusteko asmoa, inoiz baino sendoagoa. Horregatik dira erakusgarri orduko garaietako kontuak.

Horiexek sakontzeko, hona hemen bi euskaltzain oso, Mikel Zalbide eta Beñat Oyarzabal jaunak. Entzun ditzagun euron azalpenak, Lardizabali buruz.

LARDIZABALEN GRAMATIKA, BERE GIZARTE-GIROAN

Mikel Zalbide

SARRERAKO OHARRA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskariz Arantzazu Muñoa eta biok prestatzen ari ginen artikulu luzeago baten sintesi modukoa da, funtsean, aurkezpen-lantxo hau. Sintesi moduan prestatu nuen, korrika eta presaka, Lardizabalen omenez Zaldibiako udalarekin batera Euskaltzaindiak antolatua zuen ekitaldirako. Epe laburraren mugak eta bestelako lanen zamak hartaraturik, agertu ere nahi baino hutsarte gehiagoz kargatua agertu zen uda-hasierako azalpen labor hura. Hutsarte haiek zuzentzen saiatu naiz azkenik, Akademiaren argitalpen ofizialerako. Ez ditut seguruenik hutsarte guztiak zuzendua izango, larrienak halere konponduko nituela espero dut (1).

ZER DUGU AZTERGAI?

Ehun eta berrogeita hamar urte betetzen dira aurten, Gipuzkoako Foru Aldundiak Lardizabalen *Gramática Vascongada* argitara eman zuela. Donostian inprimatu zen gramatika-liburu hori, Ignacio Ramon Barojarenean, Lardizabal hil eta handik urtebetera. Artean sasoi betean zelarrik, 49 urterekin, hil zen Lardizabal izan ere, 1855ean, *colera morbo* asiaticokoak jota.

Izurritez hildako urte horretan bertan, 1855ean alegia, Lardizabalen beste liburu bat argitara emana zen: *Testamentu zarreco eta berrico condaira*. Herri-diruz ordaindua hori ere, eta Tolosan argitara emana, Gorosabel liburugilearen etxean. Beste liburu horrek egingo zuen Lardizabal zaldibitarra euskal

(1) Udan, txosten luzeagoa prestatzen ari ginelarik, dokumentazio zabalaz aztertzeko eta hasierako hainbat uste-iritzi zuzentzeko edo osatzeko aukera izan dut. Laborpen honetan ez ditut, jakina, hobekuntza eta aldaketa horiek guztiak, ez eta gehienak ere, sartu. Hasierako txostena itxuragabe aldatzea zekarkeen horrek. Jatorrizko idazkuntza nabarmen aldatzea eta, horren ondorioz, unean uneko lekukotasuna bere onetik ateratzea. Mugak muga eta moztadeak moztade, hasierako idazkuntzari bere hartan eusten saiatu naiz, beraz, ahalik eta gehien. Informazio zabalagoa eta datu-azalpen kontrastatuagoa ikusi nahi duenak jo beza Gipuzkoako Foru Aldundiak hemendik gutxira Lardizabalen omenez argitaratzeko duen liburu sendora.

letretan famatu. Zabalkundeari eta ezagutzari dagokionez hori izan zen bere obra nagusia, ez gaur aztergai dugun gramatika. Gipuzkoan eta are hemendik kanpora asko zabaldu zen bere *Condaira* hori, XIX. mendearen bigarren erdialdean batez ere. Zabaltzeaz gainera asko irakurri zen, eta asko entzun. Hori ere kontuan hartu behar baita, idazle baten sonaz eta famaz jarduterakoan. Liburuak ez ziren irakurri bakarrik egiten. Batek irakurri eta familia gehienak entzutea eta adi-adi jarraitzea, hori ere ohikoa zen etxe askotan. Arruek Santa Genovevaren bizitzaz egindako irakurgaiarekin batera *Testamentu Zar eta Berrico Condaira* hori izan bide da, zenbaiten esanean, XIX. mende horretan eta hegoaldean euskaraz gehien irakurritako liburua. Lardizabalen idazle-maila neurtzeko orduan nekez utz liteke datu hori alde batera (2).

Gaur ez gatoz ordea erlijiozko liburu famatu hartaz hitz egitera, batez ere 1856an argitara emandako euskal gramatikaz eta bere ingurumariaz argitasun bat edo beste eskaintzen saiatzera baizik. Gatozen beraz, besterik gabe, Lardizabalen *Gramática Vascongada* horretara. Ohiz kanpoko izaera berezia zuen liburu horrek: hots, gure artean eta aldi hartan berezia. Ez zen eliza-liburua, dotrina edo deboziozko irakurgaia, hasteko, eta bazuen horrek bere nobedade punttua. Joan den mendera arte euskarazko liburuen %90 inguru erlijiozkoak izan direla jakinik (3), bestelako zerbaiten aurrean geundela esan nahi zuen horrek. «Bestelako» izate hori ez zetorkion, gainera, literaturazko edo saiakerazko liburua izatetik, ez eta eskola-umeentzako kartilla edo ikasmaterial xume izatetik, hizkuntzaren arrazoi bidezko ezagutza lortze aldera prestaturiko argitalpen jaso izatetik baizik. *Testamentu Zar eta Berrico Condairak* ez bezala, hizkuntza bera zuen oraingo liburu honek aztergai. Euskararen barne-egitura azaldu nahi zuen liburu berriak: begiz jotako irakurleak ez ziren gainera eskola-ume xumeak, euskaraz irakurtzen eta zuzen idazten ikastera zihoazenak, lehendik halako prestaera-maila eskuratua zuten irakurle euskaldun edo erdal-dunak baizik. Zeharo langintza berria izan gabe ere, hortaz, hizkuntzaren gibel-erriak aztertzen jardute horrek bazuen, gure artean, halako berezitasun punttua.

Berezia izanik ere, ez zen ordea goitik beherako nobedade. Euskara bera aztertze hori ez zen, XIX. mendearen erdialde horretan, erabateko berritasun. Ondotxozen lehenagotik prestatzen (eta hainbatean, ez beti, argitaratzen) hasiak ziren horrelako lanak, gure artean. Euskararen barne-egitura eta hitz-altxorra hainbat euskalariren ikergai bihurtua zen ordurako, ipar eta hego. Gipuzkoan, bereziki, hor zegoen aurreko mendetik Larramendiren testigantza: bere 1729ko *Arte* edo gramatika batetik, eta 1745eko *Diccionario Trilingüe* bestetik, mugarri sendoak gertatuak ziren XVIII. mendean. Harrezkero, gramatika-lanari heldu nahi zionak nekez hutsetik jardungo zukeen. Andoaindar handiaren itza-

(2) Bost argitaraldi izanak ditu *Testamentu Zar eta Berrico Condaira* horrek, 1855ean lehenengoz argitara eman zenetik. Informazio zehatzerako ikus Urgell, 1995: IV-XIV orr.

(3) Ikus ibon Sarasolaren *Euskal Literatura numerotan*, 109. or.

la ez zen gainera, hizkuntza kontuan, ohiko corpus-kodeztatze lanera mugatzen. Bai hizkuntzaren gizarte-dimentsioan, eta bai euskaldunon jatortasun etnokulturalaren ikuspegi soziohistorikoan, bide-urratzaile gertatua zen bera. Gidaritza intelektuala eta sozioemotiboa piztua zuen Larramendik, bere bizi-denboran eta are XVIII. mende osoan, gai horien inguruan. XIX. mendearen lehen erdialdeko hainbat euskaldun buru-jantziren artean ere erreferentzia-puntu argia izaten jarraitzen zuen *On Manuelek*. Hurbil-hurbileko jesulagunen artean izandako maisu-itzalaz gainera oihartzun zabalaz eskuratu zuen Larramendik, XIX. mendean ere: Segurako Luis Astigarraga, Zaldibiako Juan Inazio Iztueta eta Hernaniko Agustín Pascual Iturriaga ez genituzke, urrundik ere, gidaritza horren lekuko hutsalenak. Bistan da beste zenbaiten artean, Mogenen baitan bereziki, andoaindarraren izaera ausart-trumoitsuak kezka-biderik eta desadostasun-seinalerik azaleratu zuela. Kasu horietan ere asko, izugarri zor diote idazle horiek Larramendiri. Zernahi dela ere, andoaindarrak hegoaldean urratutako ildotik egin zuen zaldibiarrak aurrera, bere *Gramática Vascongada* paratzerakoan.

Probetxuzkoa genuke noski, Lardizabalen euskal gramatika hori eta bere argi-ilunak aztertu nahi izatekotan, liburuaren edukian bertan zentratzea. Bidezkoa genuke zaldibiarraren liburua linguistikaren aldetik arakatzea eta, besteak beste, 1856ko lan hori Larramendik 127 urte lehenago argitara emandakoarekin konparatzea. Ez noa horretan saiatzera. Lehendik bada, gutxi-asko, horrelako lanik eginik, eta aurrerantzean are gehiago izango dugu eskueran: Beñat Oiharzabalek gaur bertan, eta Jose Antonio Mujikak laster, eskainiko digute ikuspegi gramatikal hori neuk egin dezakedan baino sakonago eta argiago.

Lardizabalen lan honek pizten duen interesa ez da, ordea, azterketa linguistikora mugatzen. Bada bestelako ikuspegiak ere, lantzea merezi duenik. Merezi du bereziki, Lardizabalen omenezko ekitaldi honetan, beste galdera modu hauei ere erantzutea (4): nor genuen Lardizabal?, zergatik eta zertarako idatzi zuen gramatika-liburua?, norentzat idatzi zen liburu hori? Zer gizarte-girotan suertatu zitzaion Lardizabali liburu hori idaztea? Nola zebiltzan gizarteko kontuak, Zaldibian eta Gipuzkoan, XIX. mendearen erdialde hartan? Nola zebiltzan industrializazioa eta urbanizazioa, bidegintza eta teknologiazko aurrerapena? Nondik nora zebiltzan ekonomia eta politika, hezkuntza eta literatura? Zertan ziren euskara-erdaren atzera-aurrerak, gizarte-bizitzan? Ba ote dago giro hartako jarduna ikuspegi soziohistorikoan edo soziokulturalen txertatzerik, eta era horretan langintza haren perspektiba zabalago bat eskuratzetik? Galdera horiek, eta beste hainbatek, liburuaren edukiaz izan dezake-

(4) Erantzutea edo, apalago esanik, erantzun-printza batzuk bilatzen hastea: gauza gehiegi dira, bai bere bizian eta bere gramatika honen inguruan, oraingoz argitu ezin direnak. Bere bizi-denbora gehieneko esan-eginak (batez ere 1824tik 1852ra artekoak) lausoegi ditugu oraindik, hainbat galderari erantzun sendoak eman ahal izateko. Gramatika-liburu honek izan zuen zabalkunde eta erabileraz ere, zoritxarrez, ez dakigu ia ezer.

gun jakin-mina osatzen eta aberasten lagun dezakete. Galdera modu horiei erantzuten hasi nahi nieke, labur eta arin izango bada ere, gaurko txosten honekin. Arantzazu Muñoak eta biok eskuartean dugun azterketa-saioak, uda honetan bukatzekoa dugunak, balio izango du agian gaurkoan aipamen soilan utzitako hainbat punturi aurrez aurreko erantzuna ematen saiatzeko. Iñaki Azkeneri eta, bere bidez, hainbat adituri zor diogun laguntza ezin isilpean utz dezaket, lanari ekiterakoan. Ezta Zaldibiko udalean idazkari den Marisol Alkaiagari eta bere bulegokideei eta, nola ez, Zubiaurreko etxeokandre Mariasun Mendizabali, hain eskuzabalik eskaini duten laguntza zintoogatik. Mila esker guztioi. Eskerrik beroenak, azkenik, dokumentu askoren jakin-iturri ernaia izana dugun Gipuzkoako Artxibo Orokorreko Ana Otegit teknikariari.

1. NOR GENUEN LARDIZABAL?

Zaldibiarra izanik Frantzisko Inazio, has gaitezen bere haurtzaroko herriaz argibideren bat emanaz. Zaldibiko benefizio-plana dela-eta (5) badakigu, neurri batean behintzat, Zaldibiak 1791n zer itxura zuen: «En la villa de Zaldivia Provincia de Guipuzcoa de este Obispado, hay una iglesia Parroquial de la advocacion de Santa Fé con mil doscientos veinte y siete personas, ochocientos y cuarenta y cuatro de Comunión y las restantes quatrocientas veinte y tres de sola confesion en doscientas setenta y un familias, que habitan en veinte casa sitas en el cuerpo de la villa, y ochenta y ocho Caserios bastante dispersos entre si, á mucha distancia de la Parroquia de camino aspero y costanero». Badakigu, beraz, Lardizabal jaio baino 15 urte lehenago 1.227 pertsona bizi zirela Zaldibian eta herriak, guztira, 271 familia zituela. Familia horiek, bestalde, ez ziren kaletar. Gutxienak bizi ziren herriko kaskoan: 20 etxe bakarrik zeuden bertan. Inguruan berriz, kaskotik kanpora alegia, 88 baserri zeuden guztira, hainbat muño, hegal edo ibarretan barreiatuak. Uste izatekoa da 1791ko deskribapen demografiko horrek aldaketa xumeak izango zituela, oro har, hurrengo mende-laurdenean. Baserri-giroa zen beraz, kale-bizitzaren orde, Lardizabalen haurtzaroko Zaldibia hartan nagusi. Urteen joanean, badirudi aurrera orde atzera egin zuela Zaldibiak, bizilagunei dagokienez, XIX. mendearen lehen erdialdean. Ikus izan ere, 1855eko datuak: «... pueblo situado en una hondonada llana, rodeada por todos lados de altísimos montes, cuya base llega por los lados á la población. Se compone de 203 vecinos, y de 1.015 almas, que la mayor parte viven en los caserios esparcidos por su jurisdicción. Atraviesa toda la población, en dirección del mediodía al N., el rio Osinverde, que más adelante se junta con el Oria en Villafranca, engrosado con el agua de varios manantiales, y otro arroyo que baja desde Aralar; así es sumamente húmeda y sombría, la posición de este pueblo. Goza del beneficio

(5) Iruñeko Artzapezpikutegetiko Artxiboan aurkitutako dokumentu originalen kopia da, hor eskaintzen dena.

de varias fuentes de agua de excelente calidad.» (6). Demografiatzko hazkunderik eta etorkin-uholderik gabeko herri batez ari gara, hortaz, Lardizabalen garaiko Zaldibiaz jarduterakoan.

1.1. Apaiz eta idazle: Lardizabalen biografia xumea

Herriaren gorabehera horiek alde batera utzita, gatozen herritar famatuaren bizi-zertzeladak agertzera. 1806ko uztailaren 5ean jaio zen Frantzisko Inazio Lardizabal. Zubiaurre etxean jaio zen, elizatik hurbil. Etxeko seme zaharrena zen bera: bederatzi anai-arrebetan zaharrena (7). Orendaingoa zuen aita, Frantzisko Xabier Lardizabal, eta zaldibitar petoa ama, Maria Antonia Urretabizkaia. Bertako Santa Fe elizan bataiatu zuten haurra, jaio eta hurrengo egunean (8).

Etxean ez ziren aberats: jende xehea zen, oro har, Zubiaurrekoa (9). Aita herriko zirujau izanik, kontraesan bat dirudi horrek. Herriko osagile bakarra izanik aita, nola liteke familia diruz justu ibiltzea? Irudipenak irudipen balite-

(6) APUNTES ACERCA DEL CÓLERA MORBO ASIÁTICO QUE SE HA MANIFESTADO EN GUIPÚZCOA EN EL VERANO Y OTOÑO DEL AÑO 1855 ORDENADOS POR EL MÉDICO MAYOR S. M. D. JUAN ANTONIO MONEDERO, CONDECORADO CON LA CRUZ DE EPIDEMIAS POR ASISTENCIA GRATUITA EN LA DE SAN SEBASTIAN, ETC. Probintziaren Inprenta: Donostia, 1885. (50-51 orr.).

(7) Donostiako Artxiboan bertan Frantzisko Inazio Lardizabalen bataio agiria ez ezik, anai-arreben bataio agiriak ere badatoz. Hala, badakigu era berean, Frantzisko Inazio Lardizabal eta bederatzi anai-arreba zirela eta bera zela denetan zaharrena. Arrebarik gazteenaren eta bere artean, gainera, dezenteko tartea zegoen: 20 urtekoa, hain zuzen ere. Beste anai-arrebak honako hauek ziren:

1809-I-21: Jose Maria de Lardizabal (apaiza)

1811???-II-9: Maria Polonia de Lardizabal

1813-IV-29: Joana Francisca de Lardizabal

1815-I-17: Josefa Maria de Lardizabal

1817-XII-7: Maria Concepcion de Lardizabal

1820-III-28: Francisco Xavier de Lardizabal (apaiza)

1823-V-13: Jose Ignacio de Lardizabal (zirujaua)

1826-V-21: Maria Dominica de Lardizabal.

(8) Donostiako Elizabarrutiko Seminarioko Artxiboan Lardizabalen bataio agiria dator: «En la villa de Zaldivia á seis de Julio de mil ochocientos y seis, con licencia de mi el infracruzado Vicario y Comisario del Santo oficio en la Inquisicion de Navarra, Bautizo D. Juan Bernardo de Echave Pró (párroco) y Beneficiado en esta Parroquia á Fran^o. Ignacio que nació ayer a las siete y media de la tarde hijo legítimo de Fran^o. Xavier de Lardizabal natural de la villa de Orendain y Maria Antonia de Urretavizcaya de esta villa. Abuelos paternos Fran^o. Xavier de Lardizabal natl. de la villa de Idiazabal y Maria Ana de Urquia Iturrioz asi bien natural de esta de Zaldivia. Maternos Jose Martin de Urretavizcaya, y Maria Ing^a. de Jauregui también natural de esta, siendo padrinos Fran^o. Xavier de Lardizabal y Maria Ignacia de Jauregui, a quienes advirtió en parentesco espiritual y la obligacion de enseñar la doctrina cristiana á este niño. Y para que conste firmamos= Dn. Jose Ignacio de Echave = Dn. Juan Bernardo de Echave.»

(9) Halaxe dio Belaustegik 1901ean, *Euskal-Erria* aldizkarian argitara emandako artikulu batean: «hijo de padres modestos y honrados». Ideia bera errepikatu zuen Eduardo de Urrutiak ere 1922an *Euskaleriaren Alde* aldizkariako XII. alean: «fueron sus padres unos modestos y honrados trabajadores».

ke, ordea, XIX. mendean zirujau izan eta diruz xume bizi izatea hain gauza harrigarria ez gertatzea. Herriko idazkariaren %10 irabazten zuen zirujauak, izan ere, 1852ko udal-aurrekontuen arabera (10). Udaleko soldata horri, hale-re, iguala bidez jasotzen zuten ordainsaria erantsi behar zitzaion. Zirujauaren urteko irabazbidea, hori zela medio, udaletik zetorkiona baino jasoagoa izango zen nabarmen.

Umetan (eta aurrerago, mutikotan) izandako bizimoldeaz ez dugu argibide handirik. Herriko beste hainbat haurren eta gazteren hazibidea izango zuen, seguruenik, Fratzisko Inaziok. Egunean sei ordu eskolan eginez, eta aldian behin Aralar aldera edo Ordiziako feriara joan-etorriak eginaz, iritsiko zen mutila bere gaztarora. Osaba apaiz zuenez, eta une batetik aurrera herriko erretore, gainerako haur gehienek baino elizarako joera sendoagoa izango zuen agian. Anaia bat ere (1809an jaiotako Joxemari) apaiz egin zen gero. Beste anaia bat, berriz, zirujau egin zen, eta aitak utzitako postua hartu zuen herrian, 1855ean (11).

Lehen ikasketak herrian bertan egin zituen, eta Lazkaoko karmeldarretara joan zen gero, handik aurrerako estudioekin jarraitzeko asmoz (12). Fr. Lucas de San Antonio Zaldibiako behin-behineko bikarioak (eta komentuko buruak) horren berri eman zuen 1823ko urriaren 29an, Iruñeko gotzaindegiari egindako idazkian (13).

(10) Zaldibiako udal-artxiboko dokumentuetan herriko haziendaren aurrekontuak ageri dira eta bertan, besteak beste, Udaleko langileek urtean zenbat irabazten zuten zehazt-mehatz esana dator. Zirujauaren soldata, Udaleko langile guztien artean baxuena (edo apalenetakoa) zen. Begira 1852. urteko Zaldibiako aurrekontuei:

«El del secretario.....	550 reales vellon
El del alguacil.....	374
El del depositario de fondos.....	160
El del encargado del reloj.....	77
El del Cirujano.....	55
El de los músicos juglares.....	140».

Bistan da herriko idazkaria eta aguaziola zirela, udaleko enplegatuen artean, irabazi handienekoak.

(11) Aita-semeen lanbidearen inguruko informazioa Zaldibiako Udal Artxibotik atera ahal izan dugu. 1855eko ekainaren 29an jasotako aktak zera dio: «acordaron nombrar para la Junta municipal de Sanidad a (...) Francisco Ignacio Urretavizcaya Vicario á Francisco Javier Lardizabal y Don Jose Ignacio de Lardizabal Cirujanos (...)». Beraz, aita bakarrik ez, anaia ere zirujau zuen Lardizabalek. 1855eko abenduaren 16an, gainera, Zaldibiako zirujau-postua anaia hartu zuen, aitak uko egin eta gero: «en vista de la solicitud presentada por Don Ignacio de Lardizabal vecino de esta villa, único aspirante que ha pretendido el partido de Cirujano de esta dicha villa, por renuncia hecha por su padre Don Francisco Jabier de Lardizabal, le elejían y nombraban al mismo Don Jose Ignacio de Lardizabal por tal Cirujano para que lo ejerza y desempeñe por las buenas cualidades que le adornan al dicho aspirante Lardizabal y se haría su correspondiente escritura un día de estos insertando las condiciones que se han de observar».

(12) Lazkaoko komentuan beneditarrak badaude ere orain, karmeldarrena izan zen etxe hori garai batean. Desamortizazioan hustu egin zuten komentua, eta 60 bat urtez horrela egon zen, beneditarrak bertara joan arte.

(13) «se halla estudiando Gramatica con suma aplicación y siempre ha dado pruebas de buen cristiano, humilde, retirado, obediente a sus Padres y Maiores; ha frecuentado la recepcion

Bertan ikasten ari zela, karmeldarren aita jenerala bisitan etorri zen behin batean eta, Lardizabalek ikasteko ageri zuen gaitasuna ikusita, gaztea bere ardurapean hartu, gastuak ordaindu eta Burgosa eramatea erabaki zuen, filosofia eta teologia ikastera. Eta gero Madrila, karrera han amaitzera.

1824an, artean 18 urte bete gabe zuelarik, apaiz-bideari heldu zion Lardizabalek. Urte horren hasieran eskatu zuen tonsura (14): hurrengo garizuman tonsuratua izatea nahi zuen. Eskabidearen lagungarri, zera zioen apaiz-nahiak: latina ikasia zuela dagoeneko eta une horretan logika ikasten ari zela.

Besterik ere bazioen zaldibitar gazteak, bidenabar, tonsura-eskari horretan: erlijiozale eta erregetiar zela, eta konstituzioaren (atzerriko ehun mila santuistarren indarrez ezabatu berria zen konstituzio liberalaren) etsai (15). Aitormen hori egiterakoan baliteke egia osoa esan izana Lardizabal gazteak, eta oso kontuan hartzeko datua genuke hori, bere biografia taxuzkoa prestatzeko orduan. Gizarte-giroa garai hartan zein nahastua zebilen gogoan izatea ere ez da alferrikakoa izango ordea, eta beraz aitormen hori tentuz hartzea. Hasteko, Lazkaoko karmelita eta bere herriko (behin-behineko) apaiz zenak bost bat hilabete lehenago apezpikuari esandakoa ia hitzez hitz errepikatzen du hor Lardizabal gazteak. Besteren hitzak (edota, agian, apaiz-giroko kluxe moduko bat) errepikatzen ari da hortaz, bere eske-idazkian. Liberalen hiru urteko (1820tik 23rako) agintaldiaren ondotik boterera itzuli berria zen Fernando VII.a, bestalde, eta liberalen edo liberal-lagunen kontrako zigor-giro gogorra ezarria zuen aginte berriak: hainbat herri-zerbitzari (Tolosako Insue maisu semea, besteak beste) lanik gabe utziko zuen zigor-bidea, ezaguna denez. Kontuak horrela izanik, litekeena da gizarte-giro nahasi hartan aurrera egin nahi zuen gazteak bere burua erregezale eta konstituzioaren etsai aitortzea komenentziatzko jokabidea ere izatea, halako neurri batean. Zergatik diot hori? Handik hamar

de los Santos Sacramentos de Penitencia y Comunión, y siempre decidido por la Causa de la Religión y del Rey, y enemigo del Sistema Constitucional tanto el, como sus Padres, en una Palabra, se halla dotado el mencionado estudiante de todas qualidades que pueda tener un Joben para poder seguir qualesquiera Carrera».

(14) Zaldibiko parrokiari Fr. Lucas de San Antonio zen, une horretan, behin-behineko bikario. Lardizabalen bataioko eta sendotzako agiriak eskatu zituzten Iruñeko gotzaindegitik, besteak beste. Fr. Lucas de San Antonio-k 1824ko otsailaren 23an bidali zituen bataio- eta sendotzagiriak Iruñeko gotzaitzeari.

(15) Honela dio bere eske-idazkiak: Dn Fran.co Ignacio Lardizabal natural de la villa de Zaldivia con el debido respecto expone , que despues de haber estudiado la gramatica latina por impulsos de su vocacional estado Ecco. Se halla matriculado en la aula de logica de este mismo seminario conciliar. En todos tiempos ha observado un porte y conducta correspondiente al estado que aspira, ha frecuentado los Santos Sacramentos y está dotado de las cualidades apreciables que pueden apeteecer en un joven como todo consta del certificado que se presenta añadiendo haver estado decidido por la Causa de la Religión y del Rey siendo enemigo del sistema constitucional así como sus Padres; en cuya atención y á que se halla constituido en la edad de 18 años Suplica á V.E. se sirva admitirlo para la tonsura en las ordenes de la segunda semana de la proxima Cuaresma. Así lo espera y en ellos Pamplona 4 de Febrero de 1824» Firma: «Exmo Sr. A nombre del Snp.te Pedro Xamén de Asturias».

urtera gertatutako gorabeheretan ez dirudielako hain alde batera makurtua zegoenik. Are nabarmenago ageri da moderazio-kontu hori, bere osaba erretorea argi eta garbi karlisten alde atera zela («mendira joan zela») dakigunean. 1839tik aurrerako agintaritzaz liberal moderatuarekin ere, dakigun neurri apalean, aski harreman egokiak izan zituela dirudi. Esan bezala, gutxiegi da horretaz dakiguna, baieztapen sendorik egiteko (16). Beste hainbat puntutan bezala, jakite mugatuegia dugu egungo euskaldunok orduko esan-eginez. Hala dut nik, behintzat, eta orduko hainbat euskal idazleren biografia taxuzkoa egiteko orduan eragozpen zorrotza daukat, zoritxarrez. Iztueta baten, Pascual Iturriaga baten, Jose Pablo Ulibarri baten eta Mogelen beraren kokapen intelektual eta ideologikoa neurri handi batean egiteke dago oraindik, nire ustez, eta oso zaila gertatzen zaigu beren uste-sinesmen eta jokamoldeak, jarrerak eta esan-eginak garai hartako *Zeitgeist* nagusian eta gure arteko gorabehera korapilatuetan behar bezala uztartzea.

Nolanahi ere, eta bere biografia segurura itzuliz, badakigu aurrera egin zuela Frantzisko Inazioren tontsura-eskabideak (17). Bere eskaerari erantzunez, Lardizabalen nahiaren berri eman zitzaion Iruñeko Goitzaindegitik Zaldibiako herriari, eta tontsura eman ahal izateko beharrezko informazioa eskatu: «es necesario que preceda informacion de su naturaleza, legitimidad, edad, vida y costumbres, y de las demas cualidades que el derecho prescribe» (18).

Tontsura 1824an lortu zuen Lardizabalek. Eguna justu-justu ez dakigun arren, benefiziadutarako azterketa noiz gairatu zuen badakigu zehatz-mehatz: 1825eko uztailaren 5ean, hemeretzi urte bete zituen egun berean. Handik egun gutxira, uztailaren 24an, aurreko urtetik hutsik zegoen benefiziadu-plazaren jabe izendatu zuen Zaldibiako herriak tontsuratu gaztea.

(16) Orain ere ez gabiltza jakituriaz gainezka, baina ekainean hipotesi gisa emandako zenbait kontu zuzentzeko adina badakigu harrez gero. Ikus, horretaz, Lardizabalen gramatikari buruz argitaratzekoa den liburuan Muñoak eta biok eskaintzen ditugun zehaztasunak, aurrez esandakoa gutxi-asko aldatu beharra dakartenak.

(17) Otsailaren 4an eskatu bazuen Lardizabalek tontsura, otsailaren 11n hala esaten da: «Dn. Fran.co Ignacio lardizabal natural de Zaldivia ha de ser examinado para Prima. Pamp.^a 11 de feb.^o de 1824.» Jarraian hiru sinadura ageri dira: «Alejandro Tellechea», «Dn. Pedro Ignacio Gaseviro» eta «Fran.co Ignacio de Lardizabal»

(18) 1824ko otsailaren 23an Fr. Lucas de San Antoniok Lazkaoko komentuko karmelita eta Zaldibiko behin-behineko bikarioak apezpikuaren gutunaren berri eman zuen mezetan, euskaraz. Testiguak, berriaz, Zaldibiko Simon Ignazio de Armendariz, Juan Ignazio de Mancisor, Juan Ramon de Garmendia eta Martin Esteban de Echave izan ziren. Lekuko horiek eskribauaren aurrean Lardizabalen inguruko galderari erantzun zieten. Besteak beste zera azaldu zuten: Frantzisko Inazio Lardizabal ezagutzen zutela, baita haren gurasoak eta aiton-amonak ere; odol garbikoak zirela eta ez zutela inoiz inolako sektatan parte hartu; aita medikua zuela Madrilgo Real Proto Medican titulatu (Lardizabalen aitaren lanbidearen inguruko beste datu eta baieztapen bat); zintzoa, sinestuna eta ikasle ona zela, ez zela jokalaria eta ezta biraogilea ere; eta osasuntsu zegoela. Hala, Fr. Lucas de San Antoniok bataio-agiria, sendotza-agiria eta lekukoek aitortutakoa bidali zizkion apezpikuari.

Benefiziadutza eskuratu ondoan, Lardizabal gaztea ez zen herrian gelditu. Apaiz-estudioekin aurrera jarraitu zuen, aitzitik, Burgosen eta Madrilén. Apaiz-graduazoiari dagokion informazioa, eskuratu ahal izan dugun neurrian, honako hiru atalotan bil daiteke: a) 1827an *Ordenes menores* direlakoak eta subdiakono-gradua eskuratu zituen (19); b) 1828an, dimisoria bidez, diakono-gradua eskuratu zuen Burgosen (20); c) 1830ean Madrilén bizi zen, San Felipe El Real komentuan, laguntzaile gisa. Teologiako 4. urtea ikasi ondoren Teologia morala ikasten ari zen bertan (21). Noren laguntzaile zen ere badakigu: Fr. Martin de Ceberio, Maestro en Sagrada Teología, Karmeliten Ordenako buaruaren (22) zerbitzari. Urte horretan bertan lortu zuen Lardizabalek presbiterotza (23), «con dimisorias del obispo de Burgos» (24). Hogeita lau urte zituen Frantzisko Inaziok, presbiterotza lortu zuenean. Bere apaiz-ikasketei amaiera eman zien horrenbestez, eta herrira itzuli zen.

(19) Ikus Iruñeko artzapepikute giko artxiboa, caja 181-Nº 9.

(20) «D.n Fran.co Ignacio de Lardizabal diacono Beneficiado de la Parroquial de la villa de Zaldibia. Con el debido respeto espone que mediante dimisorias recibió el Diaconado en el Arzobispado en los temp.s de San Marcos del año de 1828» PRESBITERO MAILA LORTZEKO FRANTZISKO INAZIO LARDIZABALEN ESPEDIENTE A, 1830. Ikus, orobat, Iruñeko artzapepikute giko artxiboa, caja 181-Nº17.

(21) «teniendo el presente 24 años cumplidos y en la actualidad su residencia en la corte de Madrid en la compañía y servicio del P. Fr. Martin de Ceberio Maestro en Sagrada Teología en el Convento de San Felipe el R.I de la misma Correc. habiendo estudiado en el Seminario Conciliar del propio Arzobispado el 4º año de teología y ahora esta instruyéndose en la misma Teología Moral, como lo referido aparece de los documentos que acompañan á esta exposición, y como por razon de su titulo de tal Beneficiado firme la Obligación de residencia, conferencias y otras cargas desea habilitarse en el Presbiterado á la posible brevedad para poderlo hacer por sí en utilidad de la feligresía por la escasez de Ministros en que se halla, sin poder (-) á las (-) sirvientes. Por tanto recurre á la Justificación.» (PRESBITERO MAILA LORTZEKO FRANTZISKO INAZIO LARDIZABALEN ESPEDIENTE A, 1830).

(22) Ordenaren buru izate hori, Belaustegik segurutzat ematen duena, 1830eko dokumentu horretan ez da baieztatzen.

(23) Hartarako tramiteei dagokienez zera dakigu: batetik Zaldibiko bikarioak, bere osaba Urretabizkaia alegia, Lardizabalen bataio-agiria bidali zuela; bestetik Fr. Martin Zeberioak honako azalpen-idazkia aurkeztu zuela: «Certifico yo el infraescrito q.e D.n Fran.co Ygnacio de Lardizabal Beneficiado de la Parroquial de Zaldivia Obispado de Pamplona ha permanecido siete años en mi compañía (beraz, 1823tik 1830era ez zen Herrian bizi izan, Fr. Martin de Zeberioaren laguntzaile baizik, han-Hemen) y permanece en la actualidad en clase de sirviente mio en este convento de S.n Felipe el Real de esta corte y q.e desp.s de haber concluido su quarto año de teología, esta instruyéndose en las materias de la teología moral con el fin de ordenarse de presbitero; y p.a q.e conste y p.a los efectos q.e haya lugar firmo esta en el expresado convento de S.n Felipe el Real de Madrid a diez y nueve de Julio de mil ochocientos y treinta» PRESBITERO MAILA LORTZEKO ESPEDIENTE A. Ikus Iruñeko artzapepikute giko artxiboa, c/294-N-19

(24) Bere bi anaian apaizketa-bidearen berri ere badugu, hainbatean: anaia Joxemarik 1829an lortu zuen lehen tontsura, 1831n Ordena txikiak, 1832an subdiakono-gradua eta 1833an diakono-gradua. 1830ean egin zen, bestalde, Zaldibiako benefizio modernoaren kargu: hots, *Galbarioko bidearen* egile izandako Jauregiren plaza lortu zuen, azken hori aurreko urtean hil zelarik . Ikus Iruñeko artzapepikute giko artxiboa, Errazu, c/3.000-N-º 6. Anaia Frantzisko Xabierrek, berriz, 1837an eskuratu zuen tontsura. Urte horretan bertan lortu zuen Zaldibiako elizako kapilautza kolektiboa, Perun kapitain izandako Martin Olanok sortua eta une horretan, aurreko kapilaua hil zelarik, hutsik zegoena. Ikus Iruñeko artzapepikute giko artxiboa, Errazu.-c/3.000-N-º-6

Handik aurrera, itxura denez, Zaldibian bizi izan zen Lardizabal batez ere. Hogeitabost urtez, 1830etik 1855era bitartean, bere herriko apaiz-langintza horretan jardun zuen nagusiki. Hori dela-eta, Zaldibiako zuloan bizi izandako gizon isil-iluna izan zela esan izan da aspalditxodanik (25). Belaustegik 1901ean esandako hura ez da, dakigularik, inoiz aurrez aurre gezurtatu izan: «Vivió oscuro, metido en su pueblo natal de Zaldivia, y como vivió, murió también». Ez dugu uste, gauzak horrela izan zirenik. Lazkaon, Burgosen eta Madrilen ibilitako gizon ikasia genuen Lardizabal, ez bere mendi-zokondotik inoiz atara gabeko gizaixo arlotea. Gauzak ez ziren hor amaitu, gainera. Bai karlistada-garaian, eta bai horren ondoren, herritik kanpora ibilitako (bere gozoz kontra herritik kanpora bizi izandako) gizona dugu Zaldibiako benefiziadua. Ikus ditzagun bi aldiok, gaingiroki.

Karlistada-garaia oso une bizia izan zen beretzat. Bizia eta larria. Zati-banatze handiak izan ziren Gipuzkoan, gerra hori zela medio, eta ez zen halakorik falta izan Zaldibian ere. Zaldibiako herri xehea, erabilitako dokumentuen argitan, batez bestean karlisten alde agertu zela dirudi. Aldiz badirudi zezakeen jendea, estudioak egindakoa eta karguren bat zuena (notario-sekretarioa, herriko maisua,..) erreinuko *establishment* liberalaren aldeko agertu zela nagusiki: karlisten esanean «pesetero»-ak eta «urbano»-ak ziren horiek. Apaizen artean, kontuak ilunago zeuden. Liberalen alde atera ziren apaiz asko, benetan asko, eta karlisten alde mordo galanta (26). Apaiz guztiak ez ziren, Zaldibian ere, iritzi bereko. Karlisten kontra atera zen Lardizabalen osaba, Urretabizkaia bikarioa. Kontra atera zen edota, gutxien-gutxienez, erresumako gobernu «liberal-cristino»-aren ildotik ibili zen (27). Ibilera horretan herritik kanpora, Ordizian, bizi izan zen une batez: bertako Ospitale militarreko kapilau izan zen (28). Ordizia karlisten esku erori zenean, bere herrira itzuli zen Urretabizkaia bikarioa. Baliteke, zenbaiten esanetik, osaba kanpoan ibili zen denboran Zaldibiako bikario-orde Frantzisko Inazio Lardizabal izatea (29). Osaba ez bezala, pentsaeraz karlista zen Lardizabal gazte-heldua. Karlisten alde egin zuen behintzat, gero ikusiko dugunez, argi eta garbi. Bizia arriskuan jartzera ere iritsi omen zen, karlisten aldeko bere jokabidean. Kontu hori dela-eta Frantzisko Inaziok ez zuen egonaldi gozua izan herrian, gerra-garai horretan. Bere pentsaeragatik, sermoietan esandakoengatik edo dena delakoagatik (30), atxilotu egin zuten eta, herritik kanpora eramanez, preso egon zen

(25) Geroztikako aipamenetan ere horrelako zerbait aditzera ematen da, artez edo moldez.

(26) Bando bakoitzean, orduko iturrien arabera, justu-justu zenbat apaiz zeuden ez dakigu inork aztertua duen. Guk erabilitako iturrien arabera, karlisten bandoan liberalenean baino apaiz gehiago ziren. Gehiago bai, baina askoz gehiago ez.

(27) Sermoi gogorra egin omen zien zaldibiarrei, 1834an, semeei karlisten batailoietara jotzen ez uzteko edota atzera etorrarazteko esanez.

(28) Osaba bikarioa Herrian falta izan zen urte horietan, Frantzisko Inazio Lardizabal izan zen agian Herriko bikario: zehazkiago, bikario-orde. Seguru ez dakigu ordea.

(29) Horren dokumenturik ez dugu inon bilatu. Zaldibiako artxiboetan, agian?

(30) Iturriak ez dio, zoritxarrez, zergatik.

Ordizian behin baino gehiagotan (31). Azkenean ihes egin zuen (32) eta Nafarroan bizi izan zen denbora batez (33). herrira noiz itzuli zen ez dakigu, zehatz-mehatz. Itzulera hori 1837an izan zen, agian: osaba Urretabizkaia bikariotzatik kendua-edo zegoen, une horretan, eta bera zen orduan bikario-orde. Gerra-amaieran itzuliko ziren, seguruenik, osaba-iloben arteko harreman-bideak bere onera. Herriko bikario izan zen berriro, 1855eko izurritean ilobarekin batera hil zen arte, Frantzisko Inazio osaba. Frantzisko Inazio iloba, berriro, benefiziadu-mailara itzuli zen eta horretan jarraitu zuen hil arte.

Badirudi gorabehera nabarmenik gabeko eliz jarduna izan zuela Lardizabalek bere herrian, gerra amaitu ondoan. Tartean ez zen une bizi-mingarririk falta izan, benefiziadua erdi-erdian harrapatu zuena. Karlisten 1848ko inarrosaldi-saioan Altzaa-rekin gertatua (34), bereziki, ez zen isilik pasa: ez herrian bertan eta ez Gipuzkoa osoan. Mementoko pasadizoak izan ziren hori eta horren antzekoak, ordea: bere eliz eginkizun etengabea aldi behingo gertakari solteak. Ondotxo ondorio sendoagok ekarriko zizkion, aitzitik, Iruñeko apezpiku edo obispoarekin izandako adiskidetasunezko harremanak. Harreman estuak izan zituen obispoarekin, gero aztertuko dugun zenbait iturrik dioena egia baldin bada (35): eliz notario eta moja-komentuen ikuskari izan zen Lardizabal, apezpikuaren izendapenez. Azken langintza horrek, seguruenik, herrikanpora eramango zuen benefiziadua, aldi behin. Gaztetako ikasketa-periplo luzeak, gerra-garaian preso atxiloturik egoteak eta ihesi ibiliak, eta gerra ondoan herrikanpora izandako lanbide-lotura episkopal horiek aski zeregin eta aski mugimendu ekarri zioten segurki: herrian bertan ere ez zuen beraz, beti-beti, hain bizitza ilun-oharkabea izan. Ez, behintzat, «vivió oscuro, método en su pueblo natal de Zaldivia, y como vivió, murió también» esateko lain.

Noiztik ez dakigularik, euskal gauzetarako afizioa hartua zuen Lardizabalek. Han-hemengo euskal liburuak, besteak beste, taxuz eta sakon aztertu zi-

(31) «D. Fran.co Ignacio Lardizabal, Beneficiado, tiene bien acreditada su lealtad al Soberrano, por lo que ha sufrido prisión en Villa franca varias veces hasta que fugó á Navarra» (AGG-GAO CA 45,3)

(32) Ez dakigu Ordiziatik, atxiloturik zegoen horietariko batean, egin zuen ihes, edo Zaldivitik bertatik. Dokumentutik lehenengoa-edo uler liteke, baina ez da seguru.

(33) Ez dakigu ezkutuan edo agirian bizi izan zen Nafarroan. Non egon zen ere ez dakigu.

(34) Karlistak armatan altxa ziren urte horretan, Katalunian batez ere. Hemen ere izan zen halakorik. Onatiko Joakin Julian Altzaa letradua, Karlistetako jeneral izandakoa, Gobernuaren kontra atera zen 1848an eta, bere guda-mutilekin, gerrilla-lanean hasi. Aralaren preso hartu zuten Altzaa, uztailearen 2an, eta Zaldibira ekarri. Hurrengo egunean, goizez fusilatu zuten Herriko plazan. Frantzisko Inaziori suertatu zitzaion, agidanez, hil aurretik Altzaa jeneral-ohia konfesatzea. Karlistada-garaitik ezaguna izango zuen agian. Ikus, horretaz, batetik Frantzisko Apalategiren *Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak, II*, Antonio Zavalaren *Auspoa* liburategiko 293. al. an, eta bestetik Antonio Zavalaren beraren Karlisten Leenengo gerrateko bertsoak, *Auspoaren Sail Nagusian*.

(35) Hala dio Garmendiak: «Lardizábal fue amigo (...) de D. Severo Andriani, obispo de Pamplona, quien le honró con los cargos de notarios eclesiásticos y visitador de convento de religiosas» (EUSKERA, 1996: 1001).

tuen. Ez Goierriko euskal idazleenak bakarrik, eta ez gipuzkoarrak soilik ere: Iparraldeko Larregi, alde batetik, badakigu ondo ezagun zuela. Eta uste izatekoa da bizkaitarrik ere (Fraibartolome Santa Teresa buru zela) irakurria eta aztertua zuela. Euskalari fin eta fidagarriaren sona ere eskuratu zuen, une batetik aurrera. Gero argitara gabe gelditu diren, edo zabalkunde mugatuagoa (lekuz eta, agian, irakurle motaz mugatuagoa; ez irakurle-kopuruz, ezinbestean) izan duten zenbait lan idatzirik zuela badakigu: *Historia de san Miguel en Excelsis de Aralar* esate baterako. Belaustegik dioenez liburu lodi samarra zen hori, eta garbian jarrita gerturik zeukan argitara emateko. Elizaren baimena ere aurrez eskuratu zuen. Belaustegik «otras obritas de menor importancia como son novenas, devocionarios, etc., bien conocidas del público» aipatzen ditu. *Maria Santisimaren amodio ederraren novena* (1857an Tolosan argitara emana) batetik, eta *San Roque zorioneko izurrite edo pestearen contraco bi-tarteco altsuaren bederatziruena* bestetik: 1855eko izurritearen urte berean argitaratua da azken hori, Tolosako Lalama etxean aurrekoa bezala.

Euskal liburuen onespenez-aztertzaile izan zen, bestalde, Zaldibiako benefiziadua. Iztuetaren lanak hizkuntza aldetik aztertzen eta, agian, txukuntzen ibili zela badakigu, zeharka bada ere. Horretaz ari dela dirudi, behintzat, Lardizabalek Iztuetari bere (hots, azken honen) zenbait lan argitaratzen lagundu ziola dioenean.

Lardizabal ez zen, beraz, euskal liburuen zale huts, ez eta liburuxka bazuen idazle xume ere. Hortik gorako espezialista zen bera, garaiko zenbait idazlerengan berariazko berme-garantia eskaintzen zuena. Horrela bakarrik uler liteke, aurrerago ikusiko dugunez, 1852-3tik 1855era artean Gipuzkoako Batzar Nagusietatik edota Diputaziotik euskalgintzan jarduteko eskaintza, enkargua edo agindua jaso izana. Aurrerago helduko diogu gai horri, dagokion xehetasunez.

1855ean, Lardizabalek 49 urte bete berriak zituelarik eta euskal lanetan buru-belarri murgilduta corpus-plangintza zabalean ari zelarik, kolera morbo iritsi zen Zaldibiara. 1855eko udan iritsi zen kolera morbo asiaticoko hori Gipuzkoara (36) eta 4.395 hildako utzi zituen. Abuztuaren erdi alderako 32 herritan zabaldua zegoen izurria; amaierarako, berriz, 64 herritara iritsi zen. Herri gehienetara zabaldu bazen ere gaitza, ez zuen herri guztietan neurri bereko kalterik eragin. Zumaian, esate baterako, biztanle guztien %16 hil zen gaitzak jota, Mutrikun %14 eta Altzolan %31. Abuztuaren 11n nabaritu ziren Zaldibian kolera morbo asiaticokoaren lehen aztarrenak. Abuztuaren 13tik 22ra gogor zabaldu zen gaitza eta, gutxika-gutxika desagertuz, urriaren 6an erabat aldegin zuen. Arrasto sakon eta mingarria utzi zuen ordea. Ahalegin guztiak eginagatik, 34 lagun hil ziren gaitzak eraginda: zaldibiar guztien %3,35. Hilda-

(36) 1854. urtean Europatik etorri zen gaitza eta berehala –urte hartan bertan, hain zuzen ere– zabaldu zen Espainia osora. www.portaldehistoria.com web orrialdean dioenez, 200.000 pertsona hil ziren Espainian colera morbo asiaticokoaren ondorioz.

koen artean, Frantzisko Inazio benefiziadu eta euskal idazlea. Euskalgintzaren gurpilean bete-betea ari zela hil zen zaldibiar buruargia. Neurri batean, Mogelen antzeko heriotza izan zuela esan liteke. Ez dakigu herriko gaixoak atenditzen ari izanik kutsatu zen Lardizabal, Mogelen kasuan bezala, baina nolahi ere antzeko heriotza izan zuten biek.

Gazterik hil zen, beraz (37), Frantzisko Inazio. Ez zen bakarra izan, gainera, etxean. Bere arreba bat ere gaitz horrek berak eraman zuen, garai hartako beste agiri batean ikus daitekeenez (38).

1.2. Lardizabalen harreman-sarea

Herri txikia eta Aralarren hegalean erdi-ezkutatua izanik ere, ez da Zaldibia mundutik aparte egon. Iztuetaren garairako nabarmen da hori, aurrerago aipatuko dugunez, eta herritik edo eskualdetik haraindiko harreman-giro horren lekuko dugu Lardizabal idazlea ere. Bazuen benefiziaduak, euskal letren munduan eta handik kanpora, aski harreman zuzenik hainbat pertsona gailenekin. Eta bazuen gainera, liburuak lagun, leku urruneko eta aldi joanetako euskal idazleen ezagupiderik. Labur beharrez, honako lotura hauek aipa litezke gutxienez.

Herrikoetatik hasita, bere aurretik Zaldibiako benefiziadu izandako Frantzisko Inazio Jauregi, *Galbarioko Bidearen* idazlea, aipatu beharko genuke. Motiborik ez da falta, bere lanak ondo ezagutuko zituela eta, agian, Jauregi 1829an hil aurretik aurrez aurreko ezaguna izango zuela uste izateko.

Herritik kanpora, berriz, Frai Bartolome Santa Teresa ondo ezagutzen zuen Lardizabalek, Lazkaoko komentutik ikasle izandako garaitik. Berak be-

(37) Donostiako Seminarioko Elizbarrutiko Artxiboan aurkitu dugu Lardizabalen heriotzaren berri ematen duen agiria eta honela dio: «Día veinte de Agosto de mil ochocientos cincuenta y cinco habiendo recibido los Santos Sacramentos de Penitencia y Uncion murio con Colera á los quarenta y nueve años y un mes de edad en esta villa de Zaldivia D. Francisco Iganacio de Lardizabal Presbitero Beneficiado decano de la Iglesia Parroquial de la misma villa, Notario Ecco. Y natural de la citada Villa, hijo legitimo de D. Francisco Xabier de Lardizabal natural de la villa de Orendain y residente en esta villa, y de D^a Maria Antonia de Urretavizcaya, ya difunta (azken bi hitzak gainaldean datoz idatzita), natural y residente que fue de esta villa. No testó y al mismo día fue conducido su cadaver al Campo Santo, habiendosele echo las funciones de Iglesia cuando ceso el Colera». Agiri hau Jose Maria de Lardizabalek firmatuta dago, Frantzisko Inazio Lardizabalen anaiak, hain zuzen ere. Bertan zera dio: «Benef.do y Vic.º int.º»

(38) «Día ocho de septiembre de mil ochocientos cincuenta y cinco habiendo recibido los Santos Sacramentos murio con Colera á los quarenta años y ocho meses de edad en esta Villa de Zaldivia D^a Josefa Maria de Lardizabal soltera natural de esta Villa, hija legitima de D. Franco Xabier de Lardizabal natural de Orendain y residente de esta villa y D.^a Maria Antonia de Urretavizcaya ya difunta (azken bi hitzak gainaldean datoz idatzita) natural y residente que fue de esta Villa. No testó; y el mismo día fue conducido su cadaver al Campo Santo habiendosele hecho las funciones de Iglesia cuando ceso el Colera. Y firma = sobre puesto = ya difunta D. Jose Maria de Lardizabal Benef.do y Vic.º int.º»

zala, baina ondotoxoz lehenago, Lazkaon ikasi zuten Fr. Bartolome de Santa Teresak eta Juan Inazio Iztuetak. Azkueren ustez, Fr. Bartolomeren ezagupide horri zor izango litzaioke Lardizabalen euskarak duen Bizkai kutsua. Ez dakit kontu hori hain-hain argia den (39).

Nolanahi ere Juan Inazio Iztueta izan zuen Lardizabalek, itxura guztien arabera, hegoaldeko euskal idazleen artean ezagunena. Dударik ez dago, bere herritar famatu Juan Inazio Iztueta ondo ezaguna zuela. Ezagun ez ezezik, hainbat aldetatik begiratura ezagun hurbila eta konfiantzazkoa ere bai. Badakigu Iztuetaren zenbait idazlan (1842ko Gipuzkoako Kondaira?) argitaratzen (zuzenketa-lanean?) berak lagundu zuela (40). Eta badakigu, ororen gainetik, Iztueta hil zenean Lardizabal izan zela bere testamentuaren betearazle edo albazea gisa ari izandako bi lagunetako bat (41).

Bere harreman-sarea ez zen, bestalde, euskalgintzaren esparru meharrera bakarrik zabaldu. Elizaren alorrean ere izan zuen Zaldibiako benefiziadua, aitzitik, helduleku argirik: Iruñeko apezpiku Severo Andrianiren konfiantzako gizon ere izan zen Lardizabal (42). Bere geroko erraztasuna, Foru Aldundiko goi-agintariekin harremanetan sartzekoa, baliteke beraz lehenagotik, eliza-agintariak tarteko, osatzen eta sendotzen hasi izana.

1.3. Lardizabalen liburutegia eta bere paper galduak

Badakigu Lardizabalen liburutegiarekin, Iztuetarenekin ez bezala, ez zela inbentario zehatzik egin bera hil ondoren. Bereak izandako liburuen (liburu batzuen?) berri eman izan da gero, baina bere idazlan argitaragabeen eta gutun-sortaren berri zehatzik ez dirudi dagoenik. Sutara bota ziren bere hainbat paper, eta paper-erretze horrek bere biografiarako ate nagusietariko bat itxita utzi digu. Labur bilduz, alde horretatik ezin dugu jakin Lardizabalek zer lan idatzi (eta argitara gabe utzi, edo utzi behar izan) zituen. Pentsatu bai, pentsa dezakegu, esate baterako, gero aipatuko ditugun hiztegia eta euskaratik gaztelaniara itzultzeko obra (Iztuetaren eskola-liburuaren parekoa zitekeena) aurreratu samarrik izango zituela hil zenean. Segurtasunik ez dago, ordea, horretaz.

(39) Duda-muda handia eragiten dit lotura-bide aski mekaniko horrek. Batez ere aurrez aurreko harremanei dagokienean, ez da batere garbi halako loturarik izan zuenik. Besterik litzateke, jakina, liburu bidezko ezagutza.

(40) Hala esana du bere berri ondo zekien Jose Garmendiak: bai 1968an, «El Diario Vasco»-n, eta bai 1996an, *Euskera* aldizkarian.

(41) «Nombre por mis testamentarios y alvaceas al mismo Mancisidor y Dn Frcº Ignacio de Lardizabal Pro. Beneficiado de la Parroquial de esta villa

(42) «Lardizabal fue amigo del ilustre cantor de los bailes vascos. Iztueta, a quien ayudó en la publicación de sus obras y del no menos distinguido don Severo Adriani, obispo de Pamplona, quien le honró con los cargos de notario eclesiástico y visitador de conventos de religiosas...» (Diario Vasco-ko zita)

2. ZER GIZARTE-GIROTAN SUERTATU ZITZAION LARDIZABALI LIBURU HORI IDAZTEA?

Nola zebiltzan kontuak, Zaldibian eta Gipuzkoan, XIX. mendearen erdialde hartan? Nola zebiltzan industrializazioa eta urbanizazioa, bidegintza eta teknologiazko aurrerapena? Nondik nora zebiltzan ekonomia eta politika, hezkuntza eta literatura?

2.1. Industrializazioa

Produktzio industrialia asko hazi zen Europan, 1830 eta 1870 artean (43). Aurreko mendean egindako zientzia-aurrerapenak langintza jakinetan aplikatzen hasi zen jendea, Europa mendebaldean (Ingalaterran, Frantzia, Alemanian,..) bereziki. Industria-iraultza famatu horren garaikide dugu Frantzisko Irazio Lardizabal. Zertxobait atzeratuxeago ere, laster iritsi zen gure artera industria-iraultza hori. Tximiniaz betetzen hasi zen Gipuzkoa, 1840tik aurrera. Batez ere Probintziako hiru eskualde hauetan antzeman zen molde berriko industriaren zabalkunde hori: batetik Donostian eta bere inguruan (Erreterian, Lasarten,), bestetik Bergara aldean eta, azkenik, Oriabarrean (batez ere Tolosa inguruan). Papergintza batetik, makina bidezko oihala- eta janzki-prestaera bestetik eta burdingintza berritua azkenik: horiek dira, askogatik, industria-bide berritu horrek Gipuzkoan izan zituen zutabe nagusiak. Kostaldeko kontserbagintza, itxuraz beranduxeago hasi izateaz gainera, ez zen neurritz eta hedaduraz aurreko horien pareko izatera iritsi.

Lardizabalek izan zuen aukera, hortaz, industria-berrikuntza horretaz (berrikuntza horren hasieraz, hobeki esanik) jabetzeko. Umetan eta gaztetan eza-gutu zuen Zaldibia eta Goierri aldatzen hasi zen, bertako jendearen lanbideari (eta horri maiz erantsi ohi zaion bizimoduari) zego-kionez. Berrikuntza handia ekarriko zuen horrek: hamarkada batzuen buruan, errotik aldatuko zituen industrializazio horrek nekazari-giro tradizionalako hainbat lanbide eta jarduera, ikusmolde eta balore-sinesmen. Errotik aldatuko zituen aurreko mintzajardunaren elementu askotxo ere, hiztun arrunten leku-aldatzea eta bestelako harreman-sareetan txertatu eta sare horien bestelako aldaera-sorta zabalagoen (erdarazko jardunbideetara makurtuagoen) baitan murgil egin beharra ekarri zuen neurrian. Bere begien bistan izan ahal izan zituen hortaz, Lardizabalek, molde berriko langintza horren lehen ondorioak.

Neurri apaleko ondorioak izango ziren, halere, bere bizi-denbora laburrean eta bera bizi zen inguruan, lehen uneko industrializazio-uhin berri horren ondorio ekonomiko eta soziokulturalak. Bertako jende gehienak, bai Goierri-

(43) Hala ageri da John D. Bernal autorearen «Historia Social de la Ciencia» liburuko 419. orrialdean: «En la enorme explosión de actividad productiva que tuvo lugar entre 1830 y 1870 la ciencia desempeñó una función vital pequeña pero creciente».

eta bai, bereziki, Zaldibian, lehengo bizimoduaren arrastotik jarraituko zuen izan ere Lardizabalen garaian. Benefiziaduak bazuen, dudarik gabe, han-hemen indartuz zetorren gizarte molde berriaren berri izateko motiborik: herri-tik 20 kilometroko jira-bueltan bazuen, alegia, industria-iraultza horren testigantza zuzenik. Baina aldaketa horiek mugatuak izango ziren: «betiko» lan moldea, ohiko baserri-legea eta herri-herrixketako artisautza xehea, izango ziren bere bizi-denboran nagusi.

2.2. Bidegintza eta garraioa

1840ko hamarkadan Gipuzkoan zehar (batez ere Oria ibaiaren inguruan) jartzen hasitako industriak, eta ez industriak bakarrik, bide berriak eskatzen zuten. Beharrezkoak ziren horiek, bertako produkzioari irteera emango bazitzaion. Hots, Gipuzkoa osoan errepide-sare egokia behar zuen industriak. Baziren bestelako arrazoiak ere, ordea, bide-berritze horren alde zeudenak (44). Aldaketa handien garaia izan zen Gipuzkoan, motibo bat eta beste zela medio, 1845etik 1865erako hamarkada pareta (45).

(44) Ikus, bereziki, José Angel Achón Insaustiren *Historia de las Vías de Comunicación en Guipuzkoa*

(45) Hona hemen 40ko hamarralditik aurrera Diputazioaren eskutik eraiki ziren errepideetako batzuk:

«– Carretera del río Urola, de Zumaya á Errastiola	1843-1844
– Carretera de Santa Agueda	1846
– Carretera de Campanzar	1846
– Carretera de Oñate á Ormaiztegui, por Legazpia	1846-1848
– Carretera de la costa, por Usúrbil, Orio y Zarauz	1851-1853
– Carretera de Oyarzun á Mendiondo de Rentería	1852-1853
– Carretera de Salvatore á Errastiola	1852-1853
– Carretera de Segura y Cegama hasta Idia-Kaitz	1854-1855
– Carretera del puente de Lazkaibar á Ataun	1855-1856
– Carretera de Elgóibar al confín de Vizcaya	1856-1857
– Carretera de Motrico al confín de Vizcaya	1856-1857
– Carretera de Azcoitia a Villa-Real	1860-1862
– Carretera de Villa-Real á Legazpia	1862-1863
– Carretera de Tolosa á Berrobi	1862-1863
– Carretera de Lasarte á Chiki-erdi	1863-1864
– Carretera de Zarauz á Guetaria	1863-1864
– Carretera de Idia-Kaitz á Arkurutzeta	1863-1864
– Carretera de Zaldivia á Villafranca	1864-1865
– Carretera de Elizaberrí á Zumarraga	1865-1866
– Carretera de Irún al paso de la estación	1865-1866
– Carretera de Fuenterrabía á dicho paso	1865-1866
– Carretera de Rekalde á la de Oriamendi	1865-1866
– Carretera de Amezqueta á Alegría, cinco de los seis trozos	1865-1866
– Carretera de Deva á motrico	1865-1866
– Carretera del ramal de Segura á Mutiloa	1865-1866
– ...»	

XVIII. mendeko errege-bidearen ordez karretera jenerala osatzeari ekin zitzaion garaia dugu hori, alde batetik. Gipuzkoa barruko herriak eta herrixkak lehen baino bide sendoagoz lotu zituenekoa, bestetik. Karretera jeneralari dagokionez, herritik herrirako joan-etorria errazteaz gainera erdigunearen eta periferiaren arteko ikuspegi berritua ekarri zuen fase berri horrek: aski gipuzkozentrikoa izatetik estatuzentrikoa izatera pasatu zen karretera jeneralaren ikuspegia. Probintzia barruko bide-bidexkak hobetzen, bestalde saio handia egin zen. Orduan zabaldua da, adibidez, Zaldibiatik Ordiziarako bide berria (oraingoa). Lardizabalek ez zuen, damurik, herritik tren-geltokira zeraman bide berri hori ikusterik izan. Bera hil eta handik zortzi-bederatzi urtera gertatukoa da bide-berritze hori ere.

Geltokia aipatu dugunez, gatozen trenbide kontura. Orduantxe ari zen Europa, jakina denez, tren-karrilez osatzen eta betetzen. Gurdien eta dilijentzien joan-etorrirako bide-berritze eta bide-zabaltze horiek garrantzitsuak izanik ere, are inportanteagoa gertatu zen noski Gipuzkoan barrena, lehenengo aldiz, trenbidea eratzea. Ordukoa dugu Norteko karrila, Madril eta Paris lotuko zituena. Bere eragina bereziki sendoa gertatu zen Goierrin, alderik alde pasatzen baitzen bertatik trenbide hori. Berrikuntza hori ere ez zuen Lardizabalek bere bizidiborran ikusterik izan. 1863tik 64ra artean estreinatu zen trenbidea, Gipuzkoa barruko zein Espainiako garraio-bidea erabat birmoldatuz.

Bide-berritzearen lehen emaitzak ikusteko egoeran izan zen beraz, baina berrikuntza horien hasieraz baizik ez zuen jabetzerik izan. Bidegintza amaituaz, eta bere ondorio demografiko, sozioekonomiko eta soziokulturalaz (eta horien tartean soziolinguistikoez) jabetzeko aukera handirik ez zuen izan. Handik mende erdira Domingo Agirrek bere *Garoan* azalduko zituen kezka-beldur eta gaitzespeneko jarduak nekez Lardizabalek izan zitzaizkeen, nolana ere.

2.3. Urbanizazioa

Bistan da industrializazioak eta bide berriak zabaltzeak eragin bizia izan zuela herritarren bizilekuan eta bizimoldean. Bizilekuari dagokionez, baserritik kalera (eta, hainbatetan, herrixketatik herri edo industrialde zabalagoetara) egin zuen jendeak. Hots, urbanizazioa indartu zen nonahi eta, neurri berean, hainbat herrixkatan nagusi izandako baserriko bizia nabarmen ahuldu. Ameriketarako emigrazioak berekin zeraman demografia-galeraz aparte, eskualde mailako nukleazioa eragin zuen industrializazioak eta bide berrien (batez ere trenbidearen) zabalkundea. Xenpelar bat, urrutirago gabe, baserritik kalerako jizarte-aldakuntza horren lekuko xuxena dugu.

Lardizabalen garaian indartu egin zen, dudarik gabe, urbanizazioaren fenomeno hori. XIX. mendearen lehen erdialde horretan ez dirudi ordea, oro har, fenomeno horrek berebiziko neurririk hartu zuenik Gipuzkoan. Ez behintzat,

inola ere, 1860ko hamarkadatik eta, batez ere, bigarren karlistadaren amaieratik aurrera, hartuko zuen abiadaren parekorik. Gogoan izatekoa da, alde horretatik, Donostiako harresiak ez zirela 1863ra arte eraitsi. Lardizabal ez dugu hortaz, beste hitzetan esanik, urbanizazio berri eta bizkor horren testigu zuzen izan. XIX. mendeko industrializazioa eta bide-berritzea (fenomeno bien hasiera) aurrez aurre ezagutu ahal izan zituen, baina urbanizazioaren uhina iritsi aurretik hil zen.

2.4. Ekonomia eta politika

Urte gogorrak izan ziren, ekonomiaren aldetik, Lardizabalen gazte-garaiakoak. Kalamidatea kalamidatearen gain metatu ziren urteak, askoren esanean. Bertako industria zaharra, ehunka urtean Probintziari dirubide sendorik ekarri izan ziona, maldan behera zihoan: burdinolak ixten ari ziren, bata bestearen ondoan, hortik ez baitzegoen bizitzerik. Motiboak bat baino gehiago ziren Gipuzkoako burdingintza egoera horretara eraman zutenak: atzerrian egindako berrikuntza teknologikoak kalitate hobeko eta prezio egokiagoko produkzio industrialak ekarri zuen, eta hemen ez zen berrikuntza horri parez pare erantzuten jakin. Une batetik aurrera, bestetik eta horrezaz gainera, ohiko bezero gehienak galdu (edo galbidean jarri) ziren: batetik Hego eta Erdialdeko Amerikakoak, Monarkiaren barruan egondako kolonia horiek independentzia-bidea hartu ahala. Eta bestetik, Donostiako merkatarien hitzetan oso nabarmen, aduanak Ebron egoteak (eta penintsulan saltzekoak ziren burdin gauzei Madrilek arantzela jartzeak) are larriagoko krisialdira eraman zuen bertako industria tradizionala. 1840tik aurrera hasiko zen industria molde berria suspertzen, gorago esan denez.

Horri guztiari gerra-giroko eta gerra biziko urtealdi ugariak erantsi behar zaizkio: Frantsesteak ondorio latzak utzi zituen Gipuzkoan: herri-lur asko saldu egin behar izan zuten herrietako udalek, gerrak ekarritako zorrei aurre egiteko, eta herri-lur horiek gabe estuasun larrian gertatu zen baserriko bizibidea: gartzaina eta ezkur, su-egur eta ikatz, garo eta txilar, hori zuen baserriar-jendeak bere bizibidearen oinarrietako bat. Napoleonen kontrako gerrak eta, zer esanik ez, karlistada luzeak, areagotu baizik ez zuten estuasun hori.

Politikazko kontuei dakokienean, orobat, aldaketa handiko urteak izan ziren Lardizabalen bizi-denborakoak. Ohiko aginpide-sistemak mendeetako modus vivendi bat ezarria zuen: lekuan lekuko herrien, Probintziaren eta Monarkiaren artean eskubide- eta eginbehar-markoa, *Antiguo Régimen* delakoa. Aginpide-sistema hori ondotoxoz lehenagotik pitzatzen hasia zegoen. Hiru Probintziei dagokienez nabarmena zen, bereziki, 1766 ingurutik honako bilakara, erreinuko aginte zentralak gero eta eskumen gehiago bereganatu eta hemengo herrialdeak gero eta marko hispanikoan txertatuagotzera zeramana. XIX. mendearen lehen erdi hori, Lardizabalen bizi-denbora alegia, joera ho-

rren aplikazio-saio nabarmenekoak izan zen. Lehengo aginpide absolutuak monarkia konstituzionalari eman zion bide, eta bertako Foru-sistemak atzerakada nabarmena izan zuen zenbait alorretan: batez ere pase foralaren galeran, bate-tik, eta aduana-mugak (bertako merkatarik gehienengogora, antza) Ebrotik kostara ekartzeaz bat galdutako konpartimentazio-ahalmen operatiboan bestetik.

Egia da ordea, guztiarekin ere, 1839ko *Bergarako Besarkada* eta handik gutxira erreinuko Aginteak jakinarazitako arau-xedapenak erdibidean utzi zutela «Arreglo foral» delakoa. Batzuentzat lehengo aldean «gutxi edo oso gutxi» zena, «halere gehiegi» zen beste hainbatentzat. Tentsio handiko fasea izan zen, hori dela-eta, 1839tik 1868ra artekoa. Karlistaden gerla kontuetan gehiegi zentratu-rik bizi garelarik errazegi ahazten dugun bestelako tentsio-giroa: bake-giroko tentsioa, nolabait esan. Baziren noski, eta ez gutxi, tirabira hori termino politiko-operatiboetan planteatzen zutenak: konpententzien eta eskuduntzen alorrean neur-tzen zituzten horiek, batez ere, unean uneko atzera-aurrerak. Baziren bestalde, Iztueta zaldibiarrek esaldi argiz esana digunez, tirabiraren muina esfera politiko-operatibotik hainbatean, nahiz ez huts-hutsik, esfera soziokulturalera eramaten zu-tenak. Horiek izango ziren hain zuzen, luzarora, euskalgintzaren joan den men-deko euskalgintzaren iturburu hurbileneoak. Euskal herriaren jatorritasun etnokulturala eta modernizazioa bertako arauz eta bertako autorregulazioz bide-ratu nahi zuten protoelite (inoiz gutxitan elite) horiek, batetik. Aitzitik, xede na-gusia estatu monoetniko uniformearen sortzea zuen beste hainbatek, etxean zein (ba-tez ere) kanpoan. Tirabira horrek era askotako argudioak plazarazi zituen, eta aplikazio-eremu berriak eskuratu. Besteak beste argitalpenetan, eskolagintzan, lan-postu publikoen hizkuntza-eskakizunetan eta, oro har, aldeaz edo moldez on-dorio soziokultural nabariak izan zitzaizkeen beste hainbat alorretan.

Berak jakin edo ez (eta badago motiborik bera ere tirabira horien jakitun izango zela uste izateko), polarizazio politiko eta soziokultural horren altzoan jardun zuen Lardizabalek, Diputazioaren enkarguz eta ordainez bere euskal li-buruak (Testamentua, gramatika, eta bidean zituen beste bi eskola-liburuak) prestatzerakoan.

2.5. Hezkuntza eta literatura

Aurreko puntuarekin loturik zetorren, oso loturik ere, hezkuntzaren alo-rreko bilakaera. Ez da txosten hau Gipuzkoako eskolaketaren ibilbide histori-koaren azalpen xehetua egiteko lekua, baina merezik du halere bilakaera ho-ri buruzko ohar xoil batzuk egitea. Jakina denez, Lehen mailako eskolaketak eboluzio nabarmena izan zuen, gure artean ere, ehun urte horietan. Hots, 1750 ingurutik 1850 ingurura. Horrela,

- a) Hasieran udal esparruan aski zentratua zegoen kompetentzia Probin-tziaren eta Madrilen esku egotera pasa zen neurri ohargarrian.

- b) Elizaren eskola-munduko erabakimen-esparrua, desagertzera iritsi gabe ere, murriztu egin zen orobat.
- c) Mutilen kontua izatetik mutilen eta nesken kontua izatera pasa zen, halako neurri batean, lehen mailako eskolaketa.
- d) Irakurketa-idazketaren bestelakotze eta zabalkunde handia gertatu zen, orobat. Letraz letrako irakurtze-bidea gailendu zitzaion ordura arte memorizazio-bidean oinarritutako formula tradizionalari. Aurrerapen nabarmenik gertatu arren esparru horretan, erabateko alfabetatze-tasetatik oso urruti gelditu zen, halere, orduko saioa.
- e) Euskarak, ikasleen dotrina-kontuan lehen bezalatsu eginkizun garrantzitsua izaten jarraitzeaz gainera, proskripzio-moldetik elebitasun-modu baterako lehen pausoak eman zituen. Xede anitzekoa izanik ere ele biko irakasbide hori zenbaiten buruan (batez ere Pascual Iturriagaren eta bere bidetik zebiltzanen artean), *transitional bilingualism*-en paradigmara makurtu zen, eskueran ditugun datu mugatuen arabera, hainbat eta hainbat kasutan.

Marko global horretan, aparteko garrantzia eskuratu zuen une batetik aurrera euskarazko testu-liburuen eta euskal irakasleak sortzeko irakasle-eskolen kontuak. Azkenari gagozkionez, 1845etik 48ra eratu zen lehenengo irakasle-eskola, Tolosan (46), eta 1853tik aurrera saio bereziak egin ziren irakasle-eskola handi bat sortzeko. Irakasle-eskola horren xedea, Batzar Nagusien dokumentazioak argi samar dioenez, irakasle *euskaldunak* sortzea zen: «la (Escuela) normal que conviene establecer en esta Provincia es la superior, si ha de atenderse á todas las necesidades y lograrse el fin que se desea, que es el de que haya en todos los pueblos de la hermandad guipuzcoana maestros vascongados, cuya enseñanza sea uniforme». Ikasmaterial bereziak beharko ziren gainera, jakina, ikasketa horiek ondo antolatu eta gutxienezko uniformetasun bat lortu ahal izateko:

Gizarte-giro horretan txertatu behar da, oro har, Lardizabalen euskalgintza-lana. Eta hezkuntza-esparruko politika instituzional horren altzoan esplikate liteke ongienik, nire ustez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Lardizabali emandako enkargua, hiru (Testamentuarekin lau?) liburu prestatzekoa.

3. ZERGATIK, ZERTARAKO ETA NORENTZAT IDATZI ZUEN LARDIZABALEK GRAMATIKA-LIBURUA?

Gramatikak ez dira eleberririk, olerkiak edo eliza-liburuak. Kazetari-lanak edo dokumentu administratiboak ere ez, normalean. Xede jakin eta berezia

(46) Hiru urteko bizialdi labur horren ondoan Tolosako irakasle-eskola zergatik itxi zen ez du inork dakidalarik, oraindik argitu. Badirudi, nolana ere, irakasle-eskola *txikia* zela Tolosako hori, ez gero eratu nahi izan zen *handia*.

izan ohi dute gramatikek. Xede hori zein den zehazteko, esan dezagun zer ez den: gramatikaren asmo nagusia ez da literatura sortzea, fedea zaintzea, informazioa zabaltzea edota dokumentazio ofiziala tramitatzea. Xede garrantzitsuak dira horiek guztiak, dudarik gabe, hizkuntza idatziaren eremuan. Ez dira horiek, ordea, gramatiken helburu nagusi. Hizkuntzaren erabilera zuzena zein den, edota egilearen ustez zein izan behar lukeen, esan nahi izaten dute gramatika-liburuek. Hori da beren asmo nagusia, aurrez aurrekoa. Ez dute literaturaren berezko edertasun-asmorik, ez eta prosa arruntaren funtzionaltasun-beharrik. Gramatikak ez dira hizkuntzaz baliatzen beste zerbait lortzeko: hizkuntza bera da, azal eta mami, gramatika-liburuen xede eta asmo nagusi. Aurrez aurreko xedea hori izanik ere, ezkuagoko edo sakonagoko bigarren xede bat ere izan ohi du hainbat gramatikak: hizkuntza horren erabilera sendotzea, aberastea edota, gutxien-gutxienez, bizirik irauten laguntzea. Ez dira sakonagoko horiek gramatika askoren sarrerakoan, ez gehienetan behintzat, hitzez hitz aitortzen. Egon hor egon ohi dira ordea sarri, eta erne dabilen irakurleak ez du hain zaila izaten horretaz jabetzea ere.

Hizkuntzak finkapen-beharra duenean, edo behar hori duela uste denean, prestatzen eta argitaratzen dira gramatika-liburuak. Behar hori, berriz, era askotakoa izan liteke. Inoiz gramatika-azalpenik izan ez duen hizkuntza baten barne-egitura aztertu eta jakitera ematea: hori izan ohi da, hainbatetan, gramatiken iturburuan dagoen motibo nagusia. Lehendik gramatikazko azalpenik baden kasuetan, gramatika hori desegokia dela uste izatea izan liteke beste motiboa. Desegokitasunaren kausa, halakoetan, askotarikoa izan liteke: hizkuntza asko aldatu izana eta, egungo egoeran, lehen emandako arauak zaharriturik egotea, lehengo azalpenaren oinarrian zeuden formulazio teorikoak traketsak direla uste izatea (edota nabarmen hobetu litezkeela uste izatea), lehengo gramatika hori eskuratzeko zaila dela (ale gutxi gelditzen direlako, garestiak direlako,...), lehengo gramatika horrek ofizialtasun-bermerik ez izatea eta hori beharrezkoa dela uste izatea, egungo irakurleen tipologia nagusiarekin aurreko gramatika hori ondo ez uztartzea (teorikoegia eta ilunegia delako, xingleegia delako, beste hizkuntza batean idatzia dagoelako,...). Gogoeta horiek guztiak, eta beste hainbat, zilegi dira noski Lardizabalen gramatika zergatik prestatu eta argitara eman zen argitzeko orduan. Formulazio generikoak dira horiek, han-hemen berdintsu balio izan dezaketenak. Nola-halako gogoeta-bidez gainera, ba ote dago gure kasu partikular honetara hurbilago loturikako kontsideraziorik? Baietz uste dugu, eta horretan saiatuko gara hurrengo pasarteetan.

3.1. Zergatik idatzi zen gramatika hori?

Bi motibo nagusi ageri dira orduko paperetan: Aginte bidezko erabakia batetik, eta bere kabuzko deliberamendua bestetik. Ikus ditzagun biak:

- a) Gipuzkoako agintariak egindako enkargua. 1853ko Batzar Nagusien aktetan, hitzez hitz, «obras que por encargo de la Provincia estaba trabajando el Señor D. Francisco Ignacio de Lardizabal» aipatzen dira. Lehen lana bukatutakoan, eskerrak ematen dizkio Aldundiak Lardizabali «por el celo y actividad con que ha procurado y procura evacuar el encargo que le dió la Provincia de escribir una gramática de la lengua bascongada, un diccionario doble y, una obra que sirva de testo para la traduccion».
- b) Bere deliberamendua. Lardizabalen beraren hitzak dira ondoko hauek: «impulsado únicamente del deseo de mejorar la escasez que se nota de libros de esta clase»

Kronologikoki, eta beste hainbat zehar-aipamenen ildotik, badirudi Gipuzkoako Probintziaren enkargua etorri zela lehenik, eta bere deliberamendua gero. «La Provincia de Guipuzcoa que sabe el afanoso empeño con que por complacerla se ha dedicado V. á este importante trabajo».

Litekeena da, ordea, gauzak beste era batera gertatu izana: Lardizabal bere kabuz, eta lehendik, honelako ikasmaterialak prestatzen ibili izana eta Batzar Nagusiek, lan hori erdi-eginik edo aurreratu samarrik zegoela jakinik, beren asmoekin bat zetorrela uste izanik enkargua zaldibiar idazleari eman izana. Ez litzateke, harritzeko: antzeko konturik gertatu baitzen lehendik ere Iturriagaren lanekin eta, oso bereziki, Zabalaren aditz-liburuarekin, Diputazioak 1848an bere kontura argitarara emandakoarekin.

Besterik frogatzen ez den artean, halere, lehenengo hipotesia da sendoen: herri-aginteen iniziatibaz heldu zion Lardizabalek material horren (eta beste zenbaiten) prestakuntzari. Alde horretatik baluke Arrasateko Batzar Nagusien 1853ko erabaki horrek, hainbat motiborengatik, bide-urratzaierik: aurreko urtean, Tolosako Batzarraldian, Larramendiren hiztegia berrargitaratzea (zegoen-zegoenean edota eguneraturik argitaratzea) komeni ote zen eztabaidatu zenekoa, hain zuzen. Kontura gaitezen, nolana ere, urte batean zein bestean *language corpus planning* eta *language acquisition planning* egiten ari direla, bete-betean ari ere, Gipuzkoako Batzar Nagusiak (47).

(47) 1852ko Tolosako Batzar Nagusietan zera erabaki zuten: «Ultimamente se leyó otro oficio que con fecha 4 del corriente dirijia á la Junta D. Pio de Zuazua, elogiando la importancia del Diccionario trilingüe de Larramendi y ofreciendo hacer su reimpression, siempre que la Provincia le prestase la cooperacion que necesitaba para realizar este proyecto; y penetrada la Junta de la necesidad de reproducir una obra que desgraciadamente va desapareciendo del pais por falta de ejemplares de la antigua impresion, acordó recomendar este asunto á la Diputacion, para que oyendo al referido Zuazua y examinando su proyecto, viesse de darle la proteccion que pedia, siempre que conociese que por este medio se podia lograr la reimpression de dicha obra con la perfeccion posible, cuidando en este caso de mejorarla en cuanto permitan los adelantos del dia y los conocimientos que puedan adquirirse de la lengua vascongada. Al propio tiempo dispuso la Junta, que la Diputacion quedase encargada de recomendar á los Ayuntamientos de los

3.2. Zertarako?

Hemen ere bi helburu ageri dira: instituzionala batetik (Gipuzkoako Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren borondatea), eta partikularra bestetik (Lardizabalen beraren gogo-nahia). Ikus ditzagun biak, hurrenez hurren:

- a) Gipuzkoako Herri Aginteen xedea: Euskara eskola bidez zabaltzea. Lardizabalek Batzar nagusiei idatzitakora bagoaz, aitorpen espresua honako hau da: «los deseos que le animan (Probintziaren Aginteari) de difundir su muy apreciable idioma». Diputatu Nagusiak berak honela dio 1853ko irailean, Lardizabali egindako erantzun-idazkian: «siendo su objeto, imprimir y publicar esta obra, para que por ella pueda un día llegar á ser conocida de los hombres una lengua tan antigua y tan poco parecida á las demas del mundo»
- b) Lardizabalen xedea: eskolak testu-libururik gabe (edo testu-liburu gutxirekin) ez edukitzea. Erantzun hori ere, aurrekoa bezala, Lardizabalek berak emana dauka: «en un principio me dedique á la formacion de las tres obras sobredichas, y para los que tengo ya compilados en parte materiales, impulsado únicamente del deseo de mejorar la escasez que se nota de libros de esta clase».

Lardizabali ondo entenditzen bazaio, ordura arteko ikasliburuak (batez ere, Iturriagarenak eta Astigarragarenak) gutxi ziren eta ez ziren nahi bezain erraz eskuratzen. Gogoan izan bedi Iturriaga eta Astigarraga hilik zirela ordu-rako: deseo de mejorar la escasez que se nota de libros de esta clase (48).

Donostiako Batzar Nagusietara bidalitako 3. puntuak («Puntos remitidos») honela dio: «El establecimiento de una escuela normal en la misma». Ez dugu ahaztu behar laugarren puntuak Lardizabalen «Gramatica Vascongada» lanaz hitz egiten duela. 3. puntuari buruz aurrerago zera erabakitzen dute: «que pase á una comision de instruccion pública». Uztailaren 6ko batzarreko agiriak hauxe dio: «La Comision de instruccion pública encargada de dar su dictámen sobre el punto 3º de los remitidos, presentó el siguiente descargo. (hurrengo lerroan eta bestelako letra batekin) «M.N. y M.L. Provincia de Gui-

pueblos de esta Provincia, cuando llegase el caso, la adquisicion del referido Diccionario, para que pudiera constar en sus archivos esta apreciable recopilacion de voces vascongadas. Con este motivo el Sr. Corregidor político hizo presente á la Junta que para facilitar á los Ayuntamientos la adquisicion de esta obra, contribuiría por su parte con cuanto estuviese á su alcance, admitiendo en los presupuestos municipales las cantidades que se consignasen al efecto, porque se hallaba persuadido de que interesaba á este pais el que se generalizase en lo posible el conocimiento de su lengua»

(48) Astigarragaren kasuan, halere, kontua ez dago hain argi: badakigu bere semea saiatu zela, hain aspaldi ez dela, aitaren lanak berrargitaratzen. Eta badakigu, batez ere, liburu horrek aski salmenta ona zuela Probintziako eskoletan. Uste izateko da Eguren ikuskariak bere testu-liburua 1867an argitaratu eman arte berori izango zela gehien erabilitako testu-liburua.

púzcoa. –La Comision de instruccion pública, encargada de dar su dictámen sobre el punto 3º de los remitidos, concierne al establecimiento de una escuela normal en esta Provincia, ha examinado con la detencion y madurez que exigen la gravedad é importancia del asunto, el expediente instruido en su razon; y despues de haber tratado y discutido la materia en todas sus partes, tiene la honra de ofrecer á la resolucion de la Junta el resultado de sus trabajos»

3.3. Norentzat prestatu zen gramatika-liburua?

Besterik agertzen ez den artean, *Gramática Vascongadaren* irakurle potentzialak ondoko sei multzootan bilatu behar dira:

- Haur eta Lehen hezkuntzako eskola-umeak (eta beren irakasleak);
- Probintziaren Bigarren hezkuntzako Goi-institutuko ikasleak (eta beren irakasleak).
- unibertsitate-mailako ikasleak eta beraien irakasleak;
- Apaizgaiak eta beraien irakasleak;
- Irakaslegaiak eta beraien irakasleak;
- Han-hemen euskara ikasi nahi zuten euskalariak eta interesatuak.

Ez da gauza segurua, herri-aginteez ikasmaterialaren xede-multzoa aldez aurretik hain zehatz-mehatz definitua izatea: ez idatziz, Batzar Nagusien aktaidazkietan, eta ez hitzez ere, batzarraldietan bertan (49). Oso arraroa litzateke, ordea, dirua zertan gastatu nahi zen erabakitzeko orduan liburu horren erabiltzaile nagusiez inolako kezkarik ez izana. Kezka hori bazutela uste dugu guk, eta kezka horren identifikazio zehatza da orain eginkizun daukaguna. Goiko sei multzo horien azalpen xehetua azalpen-lan sendorako utziaz, honako lau puntuok aipatuko dira hemen:

- a) Eskolarako liburua. Bistan da, hasteko, irakurtzen eta idazten ikasi behar zuten neska-mutikoentzat pentsatutako liburua ez zela, inondik inora, Lardizabalen gramatika. Ez edukiaren maila aldetik, ez metodo didaktikoarenetik eta ez hizkuntzarenetik zegoen liburua bezeria horrentzat pentsatua. Norentzat, hortaz? Probintziako eskoletara banatzea erabakita zegoenez liburua, bertako irakasleentzat pentsatua zegoela pentsa liteke, batetik.
- b) Gorago esan denez Irakasle-eskola normala sortu asmotan ari ziren Batzar Nagusiak, eta irakasle-eskola horren bidez irakasle euskaldunak, beren jakitatean eta irakasbideetan neurri bateko uniformetasunik

(49) Kontu hori zehazten duen dokumentu bakarrik ez dugu, behintzat, ikusi.

zuketan irakasleak, sortu nahi ziren, Lardizabali enkargatu zitzaizkion beste lanak bezala, gramatika hori ere Irakasle-eskola horretarako pentsatua zegokeela uste izatea ez zait gehiegizko lizentzia iruditzen.

- c) «Hiru Probintzietarako»apaizgaitegia ere sortu nahi izan zen 1852tik aurrera, 1851ko Konkordatuak «euskal» elizbarrutiaz begiz jotakoaren ildotik. Badago zehar-motiborik, euskal apaizgai horiek ere bai gramatika eta bai testamentu-liburua idazterakoan kontuan izan zirela uste izateko.
- d) Bertan eta atzerrian euskararekin interesaturik zeuden euskalari jakintsuentzat pentsatua zegokeen, azkenik, *Gramática Vasca* hori. Eskueran dugun dokumentaziotik badago motiborik, bezeria hori ere kontuan izango zela uste izateko.

3.4. Nola prestatu eta argitaratu zen Lardizabalen *Gramática Vascongada*?

Lau puntu hartu litezke hemen kontuan. Batetik enkargua eta testuaren idazkuntza, bestetik onspen-azterketa, hurrena argitalpena eta, azkenik, lan-gintza osoaren ordainketa. Ikus ditzagun lau puntuok, halako xehetasun batez.

a) *Enkargua eta testuaren idazkuntza*

Fase operatiboari dagokionez Gipuzkoako agintaritzaren enkarguz egin zen, esan bezala, Lardizabalen *Gramática Vascongada*. Enkargua noiz eman zitzaion ez dago argi. Orain arte ikusitakotik, 1852 inguruan gertatuko zela pentsa liteke. Ikusi dugu bete-betean lanean ari zela 1853an, hiruzpalau liburuekin itxuraz, eta Gramatika 1853ko irailerako bukatua zeukala (50). Handik bi egunera erantzun zion Aldundiak Lardizabali, eskerrak emanaz eta, argitaratu aurretik, bere lan horren onspen-azterketa eginaraztera zihola iragarritz (51).

(50) Lardizabalek honela dio Diputazioari eginikako gutunean: «*M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa*» «Deseando llenar los deseos que V.S. en sus ultimas Juntas Generales manifestó de que continuára en la confeccion de la Gramatica Bascongada, Diccionario doble y una obra de testo para la traduccion, cuya operacion se había dignado confiar á mis cortas luces, he proseguido en la de la Gramatica, sin dejarla de la mano; y tengo el honor de presentarla á V.S. terminada ya: y me cobra el mayor placer, en que merezca su aprobacion.» Dios que N.S. muchos años. Zaldivia 17 de Septiembre de 1853. (puntu eta aparte) Fran.co Ignacio de Lardizabal».

(51) «Diputacion general de 19 de Setiembre de 1853». Azpian, berriz, zera jartzen du: «Zaldivia: Sr Dn Francisco Ignacio Lardizabal», «Con sumo placer he recibido su atento oficio de 17 del corriente y la gramática que me remite de la lengua bascongada La Provincia de Guipuzcoa que sabe el afanoso empeño con que por complacerla se ha dedicado V. á este importante trabajo, crée que estará concluido con aquella perfeccion que reclama su naturaleza; pues siendo su obgeto, imprimir y publicar esta obra, para que por ella pueda un dia llegar á ser conocida de los hombres una lengua tan antigua y tan poco parecida á las demas del mundo, debe V. no

b) *Onespen-azterketa*

Ba al dago testigantzarik, Lardizabalen Euskal Gramatikak halako onespen-azterketarik izan zuela esatera eraman gaitzakeenik? Bai, badago. Onespen-azterketa, eta are azterketa zorrotza, ezarri zion Gipuzkoako Agintaritzak Lardizabalen liburuari, argitaratze-bidean jarri aurretik (52). Ez aztertzaile bat eta ez bi, hiru aztertzaile baizik hartu zituen Foru Aldundiak lan hori egiteko. Beren izenak ere badakizkigu orain: Aldundiko akten hitzetan esateko Sres Dn. Juan Ignacio de Larrondoburo, vicario de Monjas de Motrico, Dn. Manuel de Zabal-Inchaurrieta – de – a Azcoitia, eta Dn. Sebastian Alejo de Azpeitia, vicario de la parroquial de Cestona. Laster argitaratzekoa dugun artikulu zabalean ematen dugu horren guztiaren berri (53). *Gramatica Vascongada*-rekin batera, Manuel Larramendiren euskal gramatika ere bidali zien Aldundiak hiru adituei. Hala, Lardizabalen lana Larramendirenarekin alderatu ahal izango zuten eta, bereziki, zaldibiarrek bere gramatika berri horretan hobekuntzarik egin zuen edo ez ikusi.

extrañar que antes de dar este paso, quiera cerciorarse de su merito consultando al efecto el coto de hombres competentes en la materia y concedores de la lengua bascongada. (puntu eta aparte) Tan pronto como estos examinen la obra y den su censura, tendré cuidado de comunicarsela á V. para su gobierno, debiendo yo entre tanto tributar á V. las gracias mas espresivas por el celo y actividad con que ha procurado y procura evacuar el encargo que le dió la Provincia de escribir una gramática de la lengua bascongada, un diccionario doble y, una obra que sirva de testo para la traduccion».

(52) *Language Acquisition Planning*-en atal bat, hemen eta nonahi, L2 ikasteko eta L2 irakasteko metodogintza izan ohi da. Metodogintza horren atal bat, berriz, onespen-azterketa. Ohi-turik gaude, erdal ikasmaterialen aldetik, liburu horren edukiz-azterketaz, onespenaz edo autorizazioaz hitz egitera: hots, liburu hori eskolan erabiltzeko eduki aldetik egokia dela dioen erabaki ofizialaz jardutera. Ez gaude hain ohituak, aldiz, ikasmaterialen hizkuntzazko onespen onespenaz, edota onespen-azterketaz, jardutera. Badakigu jakin biak egin ohi direla, egungo egunean, euskarazko ikasmaterialen kasuan, ez dakigu, aldiz, mende joanetan hizkuntzaz onespen-azterketarik egin izan den, eta noiz-nola. Kontua da liburuek oro har, eta ikasliburuek bereziki, onespen-azterketa jasan izan behar dutela maiz, oso maiz, eta herri-aginteen eraginez eta diru-babesez argitara emandakoak ez direla aparteko salbuespen.

(53) Agiriak honela dio: «Este oficio se pasó aunque en distintas fechas á los SresDn. Juan Ignacio de Larrondoburo vicario de Monjas de Motrico Dn. Manuel de Zabal-Inchaurrieta – de – a Azcoitia Dn. Sebastian Alejo de Azpeitia, vicario de la parroquial de Cestona». Testuak honela dio: «Hace tiempo que por encargo de esta Provincia se halla ocupado en escribir algunas obras sobre la lengua bascongada D.n Francisco Ignacio de Lardizabal, Beneficiado de la iglesia parroquial de Zaldivia. Una de las que ha terminado primero, es la gramática de la lengua bascongada, y deseando yo asegurarme por el voto de hombres competentes en la materia, si otra obra es digna de ser impresa y publicada, he creído deber remitírsela á V. para que prévio su exámen me diga su censura con aquella imparcialidad que le distingue y que espero de su buen celo. Se remitírsela pues á V. en un cuaderno manuscrito que tiene ciento cuarenta y nueve páginas con tres hojas mas de índice y notas, le remito tambien un ejemplar de la gramática bascongada escrita por el P. Dn. Manuel Larramendi para que pueda cotejarlas y ver las mejoras que sobre ella ha podido introducir el referido Lardizabal en su nueva gramática. Las noticias que tengo de su aficion decidida á esta clase de estudios y de los conocimientos especiales que posee sobre ellos, me corresponde al mérito de ella y al deseo que tiene la Provincia de que una obra escrita bajo sus auspicios, salga con aquella perfeccion y lucimiento que reclama su índole y naturaleza.

Hirurek goraiatu zuten Lardizabalen lana. Euren ustez, aspektu bazuetan Larramendiren lana hobetu egiten zuen, eta irakaslanerako balioko zuela zeritzaten. Onespen-azterketa gainditua zuen, honenbestez, Lardizabalen gramatika-liburuak. Argitaratu eta eskoletara-bidean jar zitekeen. Irakasle-eskolarako ere material egokia izango zen hori, Batzar Nagusien eta Diputazioaren ustean, irakasle-eskola hori martxan jarritakoan. Horretan ari ziren buru-belarri.

c) *Argitalpena*

Lardizabalen *Gramática Vascongada* Donostian, Ignacio Ramon Barojaren etxean, eman zuen Foru Aldundiak argitara. Mereziko luke zergatik etxe hori, eta ez besterik (Tolosako Gorosabel adibidez), aukeratu zen argitzea. Oraingoz ez dago argitasunik, ordea, puntu horretaz.

d) *Lanaren ordainketa*

Enkarguzko lana zenez, gastu guztien ordainketa Batzar Nagusien edo Foru Aldundiaren kontu joan zen: bai egileari sorkuntza-lana ordaintzea, eta bai liburugileari inprimatze-gastuak kitatzea. Lardizabal ordurako hilda zenez, bere oinordekoei egin zitzairen egile-eskubideen ordainketa. Era berean, Donostiako Baroja etxeari inprimatze-gastu guztiak ordaindu zitzaizkion. 1857an, Deban izandako Batzarretan, hartu ziren erabaki horiek (54):

Gauza garrantzitsua ikusten da hor, Blanka Urgellez aparte oraindainoan, dakigularik, inork erreparatu ez zuena. Lardizabalen Gramatika ez ezik bere *Testamentu zar eta berrico condaira* ere Agintaritzaren kontu joan zen, osorik.

Hori guztia, dudarik gabe, Herri Aginteen garai hartako *status planning* zabalagoaren barruan ulertu behar da. Are gehiago garai hartan lanak inprimatu eta publikatzeko zein diru gutxi ematen zen ikusita. Artikulu zabalean helduko zaio puntu horri ere.

(54) «Id á los herederos del finado D. Francisco Ignacio de Lardizabal Presbitero Beneficiado que fué de la Iglesia parroquial de Zaldivia, como una muestra de reconocimiento al mérito que contrajo, dando á luz la Gramática vascongada y Compendio de la Historia Sagrada en vascuence.....4.000» «Id a don Ignacio Ramón de Baroja por la impresión de dicha gramática bascongada. 5.000 reales vellón» / «Id a don Andrés Gorosabel, impresor de esta Diputación por los jornales de dos auxiliares empleados durante cien días en la impresión de dicha Historia Sagrada, escrita en vascuence por don Francisco Ignacio Lardizabal, con inclusión Rs. Vn. 1000 por vía de gratificación al mismo impresor 3.000 reales vellón» Inprimaketarekin lotutako gastu gehiagoren berri ere ematen du

Funtsezkoa da hori argitzea, gramatika horren lekua eta xedea garaiko hizkuntza-politikaren markoan kokatzen asmatu nahi bada. Oraingoan, eta lan-txo honi amaiera emateko, langintza hori marko soziolinguistiko zabalean txer-tatzen saiatuko gara. Gerokoak gero.

4. EUSKARA-ERDAREN EGOERA ETA BILAKAERA, GIPUZKOAKO GIZARTE-BIZITZAN

Diglosia bai, diglosia ez, diglosiaren purgatorioa eta diglosiaren miseriak: ondo erroturiko kontzeptuak eta argudio-bideak ditugu horiek, gure artean. Mende-laurden luzea daramagu ikuspegi horietan murgilduak. Mende-laurden luzea daramagu eta, egungo egunean nagusi diren hainbat aldarrikapen kon-tuan izanik, uste izatekoa da kontzeptu-lanketa eta sentiera-bide hori aski etxe-totua izango dugula etorkizun hurbilean ere.

Ez dago dudarik oinarri sendoak daudela diglosia-egoera haren mugak eta hipotekak azpimarratzeko. Ez da harritzekoa, horregatik, osabetezko hizkun-tza-erabileraren helburuak konpartimetazio soziofuntzional haren murriztapen-baldintzei gaina hartu izana. Ez dago gaixoarentzako xede ederragorik, osasun beteko etorkizunaren ametsa baino. Osasun beteko egoera deskribatzeko or-duan, nolana ere, aspaldidanik zehaztu eta azpimarratu izan ditugu diglosia molde haren ahuldadeak eta gaixotasun-arriskuak. Ondotxo gutxiagotan saia-tu izan gara guztiok, aldiz, diglosiaren bizi-iraupenerako berme-oinarria, di-glosiak hemen eta hainbat lekutan menderik mende berekin izan duen ezau-garri nabarmena, aipatzen eta azpimarratzen. Behar-beharrezkoa da ordea kontzeptu-lanketa hori ere, bai hizkuntzaren oraingo egoera eta bai mende jo-anetakoa halako zehaztasun batez ulertu nahi badugu.

Orain inor gutxik gogoratu nahi badu ere, Mendebal Europa osoaren fe-nomeno historiko zabala izana da diglosia. Hizkuntza biren edo gehiagoren konpartimentazioa soziofuntzionala, luze-zabal ezarria eta belaunez belaun no-labaiteko (nekez erabateko) oreka batean mantendua, salbuespen bitxi edo mingarri baino areago arau zabal izana da europa gehiengan. Bai gure artean, bai gu bezalako hiztun-herri txiki-ahulduetan eta bai, are, gurea baino asko-zaz osasun hobea zuten eta duten Mendebal Europako hizkuntza handietan: besteak beste ingelesean, alemanean eta gaztelanian. Erdi Aro gehiengan lati-na izana dute horiek guztiek H funtzioan, funtzio sakro-klasikoetan eta admi-nistrazio-lanean bereziki, etxekotua: Bertako hizkuntza ez da, halakoetan, bere *lengua vulgar* izaeratik *lengua propia*, *natural*, *nacional* edo dena delakora bat-batean pasa izan. Latinarekin batera, hiztun-elkarte eta are hiztun-herri osoetan, hizkuntza bi edo gehiago erabili izan dira H funtzioetan, are Errena-zimentutik hona, *high culture* delakoan. Gogoan izan dezagun, hurrenez hu-rren, frantsesak Ingalaterran (Erdi Aroan) eta Alemanian (XVIII. mendean)

H funtzioan bete izandako lekua eta, batez ere bertako elite politiko eta intelektualetan berekin izandako bizitasuna.

Bistan da aparteko tasunak izanak dituela diglosiak gure artean, Europako molde horretatik aski bestelakotu izan dutenak. Lehengo H (latina) / L (euskara) dikotomiko hura burubiko bihurtu zen gurean, une batetik aurrera. Hots, goiko atalari zegokionez erdara bi hartu behar izan genituen etxean, XIII. mendetik aurrera itxuraz. Egoera berri horretan, jakina denez, lekuan lekuko erromantzea erantsi zitzaion latinari, H funtziorako. Gero, Errenazimentutik aurrera, atzeraka hasi zen latina eta, horren ondorioz, H (gaztelania, frantsesa) / L (euskara) paradigma berria gailendu zitzaion aurrekoari, gero eta nabarmenago. Litekeena da, oso, Nebrixaren 1492ko gramatika-liburuaren sarreran aipatzen den aginte-esparruko gogo-giroak bilakaera horretan bere eragina izana.

Nolanahi ere, konpartimentazio soziofuntzional hori indar betean zegoen XVI. eta XVII. mendeetan, oro har (55). Badirudi goi-mailako instantzia operatiboetan batez ere 1573ko eta 1682ko Batzar nagusietan hartutako erabakiek (56), inoiz besterik esan izan bada ere, eragin bizia izan zutela luze-ara begira. Jakina denez diglosiazko gizarte-moldaeraren ildotik (baina ez horretatik soilik) erraz esplika litezke Batzarraldi horietan hartutako erabakiak, herriko alkate edo Probintziako aldun izateko irakurtzen eta idazten jakitea ezinbesteko baldintza bihurtu zutenak. Esan beharrik ez dago irakurtzen eta idazten jakiteak, ingurumen horretan, gaztelaniaz irakurtzen eta idazten jakitea esan nahi zuela.

Garaiko testigantza zuzenei dagokionez, XVIII. mendean hasi zen diglosia tradizional hori indargaltzen, arrailatzen eta zenbait lekutan, Araba gehienan bereziki, erabat galtzen. Araban luze-zabal gertatzen ari zen mintzaldatze hori ez zen ordea beste hainbat lekutan, Ipar Euskal herrian eta Bizkai-Gipuzkoetan bereziki, hainbatera iritsi. Ez hainbatera eta ez ondotoz gutxiagora. Hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena segurtaturik zegoen bertan, neurri zabalean, herri xehearen eguneroko mintzajardun arruntari zegokionean. XVIII. mendeko gatelaniaren (eta frantsesaren) *language spread* hori ez zen herrialde atlantikoetan, oro har *language shift* bihurtu. Mintzajardunaren gizarte-moldaera konpartimentazio soziofuntzional argiz zurkaiztua zegoen aspaldidanik eta, erdarak lehen ez bezalako sarbidea izanik ere azken mendean, euskarak etxeko jaun izaten segitzen zuen ohiko bere eguneroko esparru informal, aurrez aurreko eta ahozkoetan. Konpartimentazio soziofuntzional horrek bere alde zituen gainera, oraindik, aginte-esparruko babes-neurri operatiboak. Apaiz eta maisu izateko, esate baterako, euskalduna izan behar zen ezinbestean. Eskakizun-baldintza hori auziperatzen hasia zen zenbait or-

(55) Baina ikus, Nafarroarako, Fermin de Ulzurrun doktorearen 1662ko testigantza goiztiarra.

(56) Ez da ordea lehenagoko testigantzarik falta, artikulua zabalean xeheago adieraziko denez.

gano eta estamentutan (57), baina eskakizun-arau hori oro har indarrean gorde zela esan liteke, gaurkoz eskueran ditugun datuen arabera, lan-postu horietan. Indarrean gorde zen eta, XIX. mendearen erdialdean, bere beharra espresuki agudiatu eta hainbat kasutan alderik alde aplikatu egin zen.

Neurri zabalean segurtatua egon arren euskararen belaunez belauneko transmisioa, gero eta agerianago zegoen ordea euskara-erdaren molde berriko *language contact* delakoa ez zela bertako hizkuntza zaharraren osasunerako arriskurik eta kalterik gabea gertatzen ari. Euskaldun buru-jantzi, merkatari edo profesional kaletar askotxok hautsi eta ezabatu egin nahi zuen diglosia molde hori, beren harreman-sareei zegokien neurrian bederen euskararen erabilera alde batera utziz. Hartara iristen ez zen beste euskaldun ikasi askotxo, Bizkaiko eta Gipuzkoako apaiz gehienak barne, gero eta erdal elebidunago zen. Gero eta erdal elebidunago: jakin bazekien herritar jende horrek euskaraz eta erdaraz, baina erdara zen bere hizkuntza nagusia. Erdara zen bere *dominance configuration* delakoan gailen: gaztelania Hegoaldean, eta frantsesa Iparraldean. Diglosia molde tradizionalaren galera-bide zen, bide batez, jende jakituna eta zezakeen jendea, gero eta sarriago, euskaldun garbiaren mintza-moldetik urruti gelditzea.

Diglosia-galtze horri aurre eginaz plazaratu zitzaigun Larramendi, XVIII. mendearen lehen erdian, euskara-erdaren ordura arteko gizarte-perspektiba nagusiari paradigma soziolinguistiko berria erantsiz. Euskararen berezko balioak, bere *Abstandsprache* izaera eta gizarte berriaren zeregin guztietarako gaitasuna, aditzera eman eta euskaldun-erdaldun buru-jantzien artean onartzeko bidean jarri nahi izan zituen berak, lehenik eta behin. Hori izan zen bere iraultza edo paradigma-aldaketa handiaren xede nagusia.

Jakin badakigu nola-halako arrakasta izan zuela Larramendik, ez erabatekoa, bere ahalegin horretan. Nola-halako arrakasta izanik ere bistan da oihartzun zabala, eta iraupen handiko ikusmolde berria, eskuratu ziela berak handik aurrerako euskalariei eta euskaltzaleei. Paradigma berria ekarri zien berak, onerako eta kalterako, euskararen erabileraz, eta erabilera zuzenaz, gero eta kezkatuago agertzen hasi ziren protoeliteei. Hizkuntza-ideologia eta gure arteko *Weltanschauung* berri bati eman zion berak hasiera, eta ordura artekoak ez bezalako zenbait ondorio praktiko indartu zuen horrenbestez.

Paradigma horren ondorio praktikoetako bat, ongi ezaguna denez, corpus-plangintza sendoari ekitea izan zen. Hizkuntza atzera zihoala ikusten zen hiru alorretan: lurralde-perspektiban, eskualde osoetan atzeraka ari zen euskara eta zenbait lekutan orduantxe ari zen belaunez belauneko jarraipen-katetea eteten; perspektiba soziofuntzionalean, ordura arte euskarak bere mende-

(57) Iruñeko Obispadoaren mendeko epai-instantzietan gertatukoaz, zorionez, aski informazio aberatsa dugu aspalditxodanik. Espero eta desio izatekoa da Kalahorrako eta Gaztelako instantzietan gertatutakoaz ere bihar-etzi antzeko argibideak eskuratu ahal izatea.

an izandako zenbait jardun-gune eta harreman-sare eskuz aldatzen ari ziren, funtzio horietan erdara gero eta gailenago ageri zelarik. Perspektiba indibidualetik, azkenik, bertako hiztun elebidun asko, gero eta gehiago, erdal elebidun zen funtsaren funtsean, ez elebidun orekatu eta ez euskal elebidun edo euskaldun garbi.

Hiru fenomeno horietatik bigarrena eta hirugarrena ziren, XVIII. mendeko Gipuzkoan, askogatik nagusi. Donostian eta Hondarrribian ere, garai hartan probintziako hiririk erdaldunenetan alegia, bizi-bizirik zegoen euskara kalean, herritar gehienen (eta inguruko baserrietatik kalera jaisten ziren euskaldun elebakarren) artean. Ez zegoen han beraz, Araban bezala, galera espazialik. Bigarren eta hirugarren arriskuak ziren, hortaz, kontuan hartzekoak.

Bigarren eta hirugarren kalte-arrisku horiei aurre egiteko, corpus-plangintzan ikusi uste izan zuen Larramendik konponbide nagusia. Nagusia edo, agian zuzenago, larriena eta egingarriena (58). Corpus-plangintzak zuen bereztat lehenetsuna. Euskarazko eskolen beharra (nahiago bada, euskarari herrietako eskoletan sarbide zabalagoa ematea) gogoan zuen berak (59), baina ez zen horretan zentratu. Aldiz bere zenbait jarraitzaile *acquisition planning* delakora lerratu zen, Bizkai-Gipuzkoetan bereziki. Euskara bizirik atera ahal izateko, euskal gramatikak eta hiztegiak ez ziren jarraitzaile horientzat aski. Kardaberazek argi ikusi zuen eskolagintza horren beharra: 1761eko bere *Eusqueraren Berri Onac* liburua, bereziki, ele biko hezkuntza-proiektu berri baten iturburutzat har liteke (60).

XIX. mendearen hasieratik bete-betean heldu zitzaion gure artean, Bizkai-Gipuzkoetan bereziki, Larramendiren paradigma hura indarbertzeari. Hasiara batean, 1740tik 1750era artean jaiotako protoelite euskaltzalearen baitan, corpus-plangintza berrituari heldu zitzaion luze-zabal, kodeztatze-lanari *cultivation* atala erantsiz (61). Aldiz, hurrengo belaunaldiak, 1770 urte-inguruan jaiotakoak, eskola bidezko euskalgintza hartu zuen bere saioaren oinarri. Horretan saiatu ziren Luis Astigarraga 1806tik aurrera eta, batez ere, Agustin Pascual Iturriaga 1817tik aurrera. Ikusteko dago, gaurkoz, bere garaikide izan-

(58) Bistan da proiektu pertsonal hutsa baino zerbait gehiago izan zela, gainera, Larramendiren saio hori: nekez esplikatu liteke, bestela, bere 1729ko Gramatika eta 1745eko Hiztegia Gipuzkoako Agintaritzak ordaindu izana.

(59) Horretaz ez dago duda zipitzik. Artikulu luzean emango da horretaz hainbat azalpen xehe.

(60) Proiektu hori ez zen, halere, oso aurrera joan. Espainiako erreinuaren 1767ko hizkuntza-politika ofiziala Arandako kondeak Nafarroako Kontseiluari euskal liburuen debeku-aginduz jakinarazia, erabakigarria gertatu zen oso. 1771ko Errege-erabakia bera, erreinu osoko eskola-sistemaren arau-emailea, 1767ko politika-bide elebatar horren jarraikile eta garapen kontsideratu liteke. Zenbait euskaltzaleren testigantza kontuan hartuko badugu, gainera, badirudi lege-xedapen huts baino ondotoz gehiago izan zela politika-bide elebatar hori.

(61) Mogel baten figura ezin uler liteke, besteak beste, bere *cultivation* -langintza hori gabe. Bere lanak Bizkaian, batez ere XIX. mendearen erdialdeko trestugintza-administratibo-juridikoa, izan zuen eraginaz ikus, bereziki, Andres Urrutiak zuzenduriko *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta Euskara: 1833-1877*.

dako Mariano Arizmendi baten, eta Tolosako maisu Insue aitaren, jarduerak ele biko eskolagintza horren garapenean zer-nolako eragina izan zuen.

Oro har indarrean zegoen euskara, Gipuzkoan, Lardizabalen bizi-denboran. Indarrean zegoen bertako hizkuntza eguneroko jardun-gune ohikoetan: etxean eta familian, kalean eta lagunartean, lan-esparru arruntetan eta, oro har, herri xehearen bizi-poz eta beldur-kezken oinarri ziren prozesu soziokultural nagusietan. Bere lekuari eusten zion euskarak, erdara biekina batera, elizan ere: sermoi-lanean eta konfesio-esparruan, bereziki, euskara zen jaun eta jabe.

Hori guztia egia izanik ere, begien bistan zegoen gaztelania esparru berriak irabazten ari zela. Aldakuntza ekonoteknikoen eta berrantolakuntza soziokulturalen eskutik, ordura arte euskararena izandako nagusitasuna bereganatzen ari zen gaztelania hiztun-elkartearen espazio soziofuntzionalan. Irabazi horiek hain ziren sendoak non, gero eta azkarrago, euskara galtzera zihoake-elako beldurra zabalduz zihoan, bertakoen eta atzerritarren artean. Wilhelm von Humboldt-en iragarpena, 1801ean egina, XIX. mendeko beste prognosi askoren gidari eta eredu bihurtzekoa zen.

Gogo-giro horretan sortu zen, gero eta argiago, euskara indarberrituko bazen herri-agintean hizkuntza-politika sendoa behar zeneko iritzi zabala. Ez zen hori euskaltzale tradiziozale erregetiarren berariazko ustea, gehiegitxotan esan edo iradoki izan denez, eta ez liberal-aurrerazaleen aparteko bereizgarria. Sektore batean zein bestean nabarmendu ohi zen, ikusmolde politiko-operatiboaren aldeko formulazio horren oihartzunik. Era berean, euskara alde batera uztearen aldeko formulazioak ere, formulazio aktiboak zein pasiboak, esparru bietan ziren indarrean.

Gizarte-giro horretan eratu eta mamitu ziren, gero eta era esplizituagoan, hizkuntzaren aldeko status-planak. Arrasateko Batzar nagusietan, 1830ean, martxan jarritakoa ez zen bakarra izan. Bere ezaugarriak hain ongi ezagutzen ez ditugun arren, jakina da antzeko ekimenak eratu zituztela bizkaitarrek, 1829tik aurrera, Gernikako Batzar nagusietan. Are gehiago: hizkuntza-politikaren orduko dokumentazio teknikoa, Iturriagarena zein Ulibarriarena, hizkuntza-plangintzarako ikuspegi aski osatu baten erakusgarri dugu.

Karlistadak gauza asko aldatu zituen gure artean, jakina denez, baina euskara-erdaren arteko elkarbizitzari zegozkion ingurumen-baldintza nagusiek lehengo bidetik jarraitu zuen nagusiki. Hizkuntza bataren indartzea eta bestearen ahultzea ez zen geldiarazterik lortu, are gutxiago itzulipurdikatzerik. 1840tik aurrera indartzen hasitako industrializazioa, eta bide berriak sortu edo aurrekoak zabaltzea, badirudi deskonpartimentazio soziofuntzionalaren lagun-garri gertatu zirela oro har (62)

(62) Gutxiegi aztertua dugu hori ere, zoritxarrez, eta litekeena da fenomeno ekonoteknikoek eragindako emaitza soziokultural eta linguistikoen ebaluazio sakon-zehatz batek uste ez bezalako ondoriorik plazaratzea, bihar edo etzi.

Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren protagonismoaren epea da, esparru soziokulturalean eta linguistikoan, bi karlistaden arteko epe hori. Eta epealdi horren erdi-erdian kokatzen da, jakina denez, Lardizabalek Probintziaren erabakiz eta enkarguz euskalgintzari heldu zioneko urtealdia. Ingurumen horretan txertatu behar dira beraz, ezinbestean, Lardizabalen hiztegia eta gramatika, ele biko elkarrizketa-liburua eta *Testamentu Zar eta Berrico Condairaren* prestaera-saioa.

Hots, bertako Herri Aginte nagusiaren hizkuntza-politikaren ardatz nagusian txertatu behar dira bere *Gramática Vascongada* eta beste hiru liburuak. Lau liburuetatik bi argitara eman (eta, agian, amaitu) gabe gelditu izanak motibo posible bi ditu: Lardizabalen ustegabeko heriotza goiztiarra batetik, eta une hartako gertaera politikoen (tartean 1854tik 56ra arteko urte biko libera-laren) eta Probintzia barruko indar-korrelazioen joera-aldaketa bestetik. Ikus-kizun dago, oraingoz, zer pisu izan zuten faktore batak eta besteak esandako ondorio horretan.

LARDIZABALEN GRAMATIKAREN ITURRI, EZAUGARRI ETA HELBURUAK (1)

B. Oyharçabal

Arratsalde on orori! Lehen-lehenik erran dezadan plazer handia dudala hemen Gipuzkoan, Lardizabalen gramatika dela bide, zaldibiarren artean ego-tea. Eskerrak bihurtzen dizkiot, beraz, Euskaltzaindiari eta, bereziki, Ana Toledo Gipuzkoako ordezkari eta omenaldi honen antolatzaileari, Lardizabalez haren herritarren aitzinean aritzeko parada hau eskainirik.

Mikel Zalbidetik lehenago xeheki azaldu digu nor zen eta zein etxetarik jalgitzen zen Lardizabal, baita zer izan zen bere lanak egin zituen ingurumen soziopolitiko ere. Niri dagokidana da orain, gramatikaren beraren aztertzea. Bi gaiz bereziki mintzatu nahi nintzateke. Lehenik, liburuaren ezaugarri orokorrak eta iturriak aurkeztuko ditut, xehetasun gehiegitan sartu gabe, haatik, ikusiko dugunaz, ez baitu lan horrek gramatikaren aldetik halako originaltasunik eskaintzen. Bigarrenetik, liburuaren helburua aipatuko dut, soziolinguistika gaietara hurbildurik.

Lehenago erranak entzunik, ez da dudarik Gipuzkoako eskoletxeetan erabiltzeko egina izanik, gramatika horrek helburu didaktikoak zituela. Ordean, hori erranez, kontuak ez dira osoki garbitzen, zeren argitu beharra baita bestalde zer estatutu ematen zitzaion eskoletan erakutsi nahi zen hizkuntza horri eta, halaber, zer betekizun ematen zitzaion euskararen gramatikaren irakasteari. Eta azken galdera honi behatzeak garai hartan euskalari eta euskaltzaleen artean agertzen hasten zen gai bat aiparaziko digu, euskararen itzaltzearen edo heriotzaren gaia, alegia. Izan ere, badirudi Lardizabalen gramatikaren aitzin solasa irakurriz, euskara eskoletan sarrarazirik Gipuzkoako Aldundiko garai hartako zenbait kargudunen xedea, ez ororena menturaz, baina bai, batzuen, euskara monumentu hizkuntza gisa irakastea izan zela, gizartean oraindik indarrean zen aspaldiko egoera diglosikoa (euskarari euskal lurraldearen parte batean bederen mendez mende gutieneko bizi hatsa eman ziona) azkenetan izan balitz bezala. Hain zuzen, mintzaldi honen hondar partean ikusiko dugu nola ideia bera ondoko urteetan modu orokorragoan kausituko den hizkuntzalaritza naturalistak proposatuko duen teorizazio batean.

(1) Testu hau Lardizabalen oroitzapenetan Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiak Zaldibian 2006ko ekainaren 30ean antolatua omenaldian irakurri zen.

Lardizabalen gramatikaren ezaugarri orokor eta iturriak.

Oroitarazi behar dugu lehenik, Garmendiak (1981) Aldundiaren 1853ko dokumentu bat aipatuz seinalatu zuen bezala, gramatikarekin batean beste bi lan manatu zizkiola Aldundiak Lardizabali: sarrera bikoitzeko hiztegi elebidun bat, eta euskara erdarara itzultzeko gidaliburu bat. Zorigaitzez argirik ikusi gabe galdu ziren liburu horiek, antza denaz, franko aitzinatuak zirenak Lardizabalen hil aitizineko urtean edo. Beraz, deus ezin erran dezakegu haietaz, eta haien iturriez, hiztegia denaz bezainbatean, Lardizabalek haren egiteko Larramendiren *Diccionario trilingue* hura ezinbesko tresnatzat jo zukeela baizik.

Gramatikaren barne antolamendua hurbiletik darraio Larramendirenaren *Arte*-an kausitzen denari, salbu anitez toki zabalagoa utzi zuela Lardizabalek eranskin batean bereziki bildu zituen aditz paradigmegi, puntu horretan Zavalaren (1848) eragina nabari delarik. Hona nola egituratua den gramatika:

- *Lehen partea: Morfologia* (1-53)
 - Deklinabidea: (2-14)
 - Aditz jokadura: (15-53)
- *Bigarren partea: Joskera* (55-81)
 - Izen elementuei dagokiena: (55-64)
 - Aditzari dagokiona (64-67)
 - Mendeko perpausei dagokiena (67-73)
 - Aditzondoei eta posposizioei dagokiena (74-81)
 - Interjekzioak eta osagai nagusien arteko ordena (81)
- *Hirugarren partea: Prosodia* (82-87)
- *Eranskinak: Aditz taulak* (1-52, zenbaketa berria izanik)

Eranskinek liburuaren heren partea osatzen dute guti gorabehera, eta aditz morfologiari eskaini atalean agertzen diren beste taulak kontuan hartuz gero, aditz taulek liburuaren erdia baino gehiago betetzen dute (%55).

Iturriez dugularik solasa, gauza ezaguna da lan hori, parte handi batean, aitzinetik eginikako zenbait lani jarraikirik eginga zuela Lardizabalek. Honen gramatikaz mintzatu diren geroztikako ikertzaile guztiek (Urgell 1991, Mujika 2006, Gomez 2006) agerian utzi dute puntu hau. Bi iturri nagusi aipatzeko dira: Larramendiren *El imposible vencido. Arte de lengua Bascongada* (1729) lehenbizi, haren eskema orokorra eta azalpen gehienak segitu baitzuten Lardizabalek, eta Zavalaren *El verbo regular vascondado del dialecto vizcaino* (1848) gero, aditzari buruzko kapituluetan. Astarloaren *Apología de la lengua bascongada* ere ezagutzen zuen Lardizabalek (aipatu ere zuen), baina guti baliatu zitzaion ez baitzekarren liburu hark gramatikaz beraz gauza han-

dirik. Mujikak (2006) hurbiletik behatu du zeini zenbat hartu zion Lardizabalek bere gramatika azalpenen osatzeko: haren azterketaren arabera, Lardizabalek azalpenei eskainirakako orrialdeetan %70 Larramendiganikakoak dira, eta %8, berriz, Zavalaganikakoak.

Maiz besterik gabe iturria kopiatzen du Lardizabalek, laburtuz, eta sinpletuz ahal duelarik, baina itsu-itsuan askotan, hala nola Larramendik franko trakeski aztertu zuen izen berezien deklinabidea, eta oro har kasu paradigmak, azaltzerakoan. Horrek ez du erran nahi puntu batean edo bestean zuzenketa zenbait ez zituela sartu Lardizabalek. Adibidez, ez zuen onartzen Larramendik hikako adizkerak forma zuzenetan baizik ez agerraraztea, Bonapartzet gerotzik adizkera alokutiboak deitzen ditugunak isilean atxikiz. Halaber, **ezan* laguntzailearen adizki subjuntiboetan, 3. pertsonako datiboaren komunztadura marka (-io-) aditz erroaren (-za-) ezker aldean zeuzkatenen ordeztan (*diozadan*, *diozazun*, *niozan*, *ciñiozan*), bestelakoak eskaini zituen, haietan indizea aditz erroaren eskuin aldean izanik (*dizayodan*, *dizayozun*, *nizayon*, *ciñizayon*), horretan Larramendiganik urruntzen zelarik (2).

Batzuetan, aurretik ezagunak izanagatik gramatika lanetan jarri gabe zeuden zenbait puntu modu argian eman zituen Lardizabalek. Horrela, literatura-ko idazleen lekukotasunetan oinarrituz, euskararen perpaus osagaien arteko (S-O-Adlag-Ad) ordenari buruzko aholku garbi baina orekatua eskaini zuen. Honela erran zuen:

*En esta operacion [perpaus osagaiak behar den tokian jartzea] han sido varios los Escritores vascongados, sin que se hayan sugetado à un método uniforme, como que la índole del idioma presta esta libertad: sin embargo, para que la oracion salga airosa y elegante, será muy conveniente, que el verbo se coloque al fin de la oracion. (...) El agente puede colocarse en primer lugar, el paciente en segundo, y el adverbio antes del verbo: v.g. **Jaungoicoac guizona munduaren asieran egin zuen**, Dios crió al hombre al principio del mundo. Pero advierto, que cuanto digo en este capítulo relativo á la colocacion no es esencial é indispensable para una buena sintaxis. (Lardizabal 1856:81)*

Nik uste, lehenbiziko gramatika da perpaus osagaien ordenaren kontu hau hain garbiki eta zehazki finkatzera saiatu zena.

Lardizabalen iturriak aipatuz, bazterrean utziak izan ziren lanak ere gisa batez agerian ematen dira. Eta hala da: badira Lardizabalek ezagut zitzakeen lan batzuk, itxura guztien arabera, batere kontuan hartu ez zituenak. Horiek dira, alde batetik, aspaldi egin lan batzuk hala nola Oihenartek bere *Notitia Vtrivsqve Vasconiae...* (1636) delakoan euskararen gramatikaz idatzitakoa, Etcheberri Sarakoaren latina ikasteko gramatika (1712) edo Harriet-en frantsesaren ikasteko ikasliburua (1741), eta, beste aldetik, aurreko hamarkadetan

(2) Zabalari ezer hartu gabe, honek *egin* aditz laguntzailea baizik ez baitzuen aipatu subjuntiboko forma haietako.

mugaz beste aldean frantsesez eginak izan ziren lanak ere, hala nola L ecluse (1826), Darrigol (1827), edo Abbadie & Chaho-renak (1836).

Zaila da jakitea azken lan horien berririk ez ote zuen batere izan Lardizabalek, edo bazirela jakinik ere, metahizkuntza ez jakinez beharbada, zer zioten begiratu gabe gelditu zen. Badakigu iturri gisa baliatu zitzaizkion autoreek, alderantziz, ongi ezagutzen zituztela bere garaiko mugaz haraindiko gramatikak: bai, aurreko mendeen, Larramendik, baina baita, berdin, Lardizabalen garaikide zen Zabalak ere. Astigarragak ere izan zuen haien berri. Lardizabalek, ordea, ez du holakorik erakusten, eta zenbait puntutan ez da dudarik haren liburuaren kaltetan nabaritu zela jakingabezia hori. Badirudi, halaber, Lardizabalek ez zituela ikusi oraino argitaratuak izan ez ziren Astarloaren gramatika obra, eta A nibarrena.

Orain artino hemen erranari segituz, ez dugu gordeko ez dela gramatika hau, egin zen garaian egina izanik, gain-gaineko lana. Aizquibel bera ere liburu atera bezain laster ohartu zen horretaz, eta kritika baten idazteko asmoa ere izan zuen. *Koldo Mitxelena* kulturunean baita hark baliatu zuen gramatikaren alea, bada haren barnean, gramatikari berari erantsia, hosto zuri andana bat, haietan hasi baitzen Aizquibel gramatikaren kritikaren egiten. Hona nola hasten den Azquibelek sekula bukatu ez zuen kritika lan hori:

Cuando mand  encuadernar este ejemplar, a nadiendole estos dos pliegos en blanco fue con animo de combatir los errores de que est  plagada esta gramatica por haberla calcado sobre la latina, tanto en las declinaciones como en las conjugaciones, sigiendo casi el mismo metodo que el Padre Larramendi hace mas de un siglo, cuando todavia no habia hecho tantos progresos ni la filologia, ni la ling stica en general. (Aizquibel eskuizk.; ikus 2. oharra)

Aizquibel Astarloazalea zen, eta bazuen honek *Apologiaz* kanpo idatzirikako zenbait gramatika lanen berri, orduan argitaratugabeak izanagatik eskuratu ahal izan zituenak. Horregatik iduritu bide zitzaizkion guztiz zaharkituak Lardizabalek euskal gramatikaz eman azalpen asko.

Lardizabalen gramatikaren helburua

Lardizabalen gramatika, ez da apologia lan bat Larramendirena bezala, eta ez da hartan kausitzen euskararen ederraz edo abantailez derasan diskurtso laudoriozkorik. Guereca Aldundiko idazkariak berak aitzin solasean seinatatu zuen bi liburuen arteko aldea, Lardizabalena eskoletako egina izan zela azpimarratuz:

Pero esta obra [Larramendirena], escrita por causa que revela su primer titulo de Impossible vencido, es mas bien una apolog a de la lengua vascongada, que una gram tica dirigida   la ense anza p blica (Guereca in Lardizabal 1856: II)

Irakaskintzan erabiltzeko zela eta beraz helburu didaktikoak zituela erranik, ez dugu dena argitzen ordea. Alabaina, helburu apologetikoak bazterrean uzten badira, didaktikan egonik, hiru helburu izan zitzakeen eskoletan zabalzeko zen euskararen gramatika batek:

- Euskarazko irakaskintza baten osagaia izatea;
- Gipuzkoako ikasleei, beren hizkuntzaren ezagutzatik abiatuz, erdaraz egina zen irakaskintza batean, erdararen ikasteko errazbidearen eskaintzea (euskararen aurkako dekekuak arinduz edo kenduz eta euskara bera ere zerbait bederen landuz);
- Erdarazko irakaskintzako ikasgai berezia izatea, euskara ondare hizkuntza gisa harturik haren gramatika erdaraz irakatsiz.

Ikus dezagun Lardizabalen gramatika zein betekizuni egokitzen zitzaion hobekienik.

Lehen helburua, gaur egun euskara ofiziala den toki euskaldunetan ontzat ematen ohi dena (euskara erdararekin parekaturik), garai hartan ia ezin pentsatuzkoa zen praktikan. Suma daiteke gisa batez Larramendik amestua zuela eta, partez bederen, bere hiztegia ere amets hori, edo horrelako zerbait, gogoan izanki egina zuela. Badirudi, halaber, Larramendiren lana miresten zuen Garatek ere Iparraldean amets bertsua egina zuela mendearen hastapeanean. Hori darakuskigu Garatek 1811n Napoleon Enperadoreari aurkeztu zion Fenizia Berria eraikitzeko proiektuak, hartan lehen aldikotz aipatu baitzen modu argian Euskal Herri osorako egin zitekeela euskarazko irakaskintza publiko bat. Izan ere, J. Casenaveri esker azkenean osorik ikusten ahalko dugun eskuizkribu horren arabera, Garatek nahiko zuen euskal zazpi herrialdeetan lehen eta bigarren mailako ikastetxeetan euskara izan zedin irakasgai eta irakasbide nagusia, gai teknikoetan oroz gainerik (3):

Il seroit difficile de dénombrer tous les avantages qu'on sera sur de recueillir en faisant d'une telle langue [euskara] le principal enseignement de toutes les écoles primaires de tous les Lycées des Départemens formés par la réunion de tous les cantons basques de la France et de l'Espagne. (...) Il ne sera pas très mal aisé, dès le premier instant, de trouver dans les sept cantons basques des hommes en état de bien traduire dans leur idiome les meilleurs traités

(3) Ez du iduri Garatek euskararen erabilera goragoko mailetan ikusten zuen. Oreak diglosiko berri bat zuen gogoan euskara eguneroko gizarte beharretarako erabilia izanik, eta beraz lehen eta bigarren mailetako irakaskuntzan baliatua izanik. Seinala dezagun, bestalde, haren arabera ohiko euskal gizarteak ez zuela gutiesten erdi mailako hezkuntza, alderantziz baizik:

L'ambition que fait naître la gloire des Sciences et des lettres, on le croira sans peine, est inconnue dans ces montagnes et dans leur vallées; mais plus qu'ailleurs, peut-être, on y méprise l'ignorance. Avant la révolution il étoit rare que dans les bourgs les plus indigens il n'y eut pas un régent qui enseignât à lire et à écrire à tous les enfants du bourg. Les pays basques étoient, comme la Phénicie, non pas le país de la littérature, mais le país des lettres, de l'alphabet et de l'écriture. (Garat, idem)

d'hydrographie et de mécanique, les meilleurs élémens d'histoire naturelle et de chimie, tous les livres enfin qui deviendroient nécessaires à ces cantons destinés essentiellement à la culture des terres, au service de mer. (Garat, *Les recherches sur le peuple primitif de l'Espagne, sur les révolutions de cette Péninsule, sur les Basques Espagnols et français*, 1811)

Ez du iduri, ordea, horrelako asmo edo ametsekin zebiltzala mendearen erdialdean Gipuzkoako herri gizonak. Garai hartan Foru Aldundiak herrialdeko eskoletako irakasleen moldatzeko egitasmo berriak izan bazituen ere (segur aski euskara ere kontuan harturik, M. Zalbidetik adierazi digunaz), erdaraz idatzi gramatika eskatu zioten Lardizabali, franko urrun, beraz, Garatek aipatu bezalako xedeetarik. Nekez, ene aburuz, horrelako testuinguru batean koka daiteke Lardizabalen gramatika.

Bigarren helburua ere –ikasleen sortzeko hizkuntzaren ezagutzatik abiatuz, erdaraz egin zen irakaskuntza batera hurbiltzeko bidea eskaintzea–, ohiko egoera diglosikoari zerraiona, ez dut uste Lardizabalen gramatikarena zela, eskola liburu hori egiazki eskoletxeetan erabiltzekoa bazen behintzat. Dударik batere gabe gramatika didaktikoen sailean gisa horretako liburuak ziren orduan gehienik landuak izan zirenak Euskal Herrian, baina beti beste hizkuntza baten irakasteko. Aitzineko mendean eginak izan ziren Iparraldean, hala nola lehenago aipatu ditugun Etcheberri Sarakoaren eta Harrieten gramatika ikasliburuak. Euskaldun gazteei latina eta frantsesa erakusteko eginak izanik euskaraz idatziak izan ziren eta nahitaez euskararen gramatika ere bortxaz pisika bat lantzen zuten, zeharka bazen ere. XIX. mendearen lehen partean, Gipuzkoan ere egin ziren horrelako liburuak. Lehenbizikoa, hainbestetan berrargitaratu izanen zena, Astigarragaren *Diccionario manual bascongado y castellano y elementos de gramática* izan zen. 1825ean argitara eman zen lehen aldiko, eta bi urteren buruan berriz argitaratu zen bertsio osoago batean. Maila apaletan erabiltzeko liburuak zen, bukaeran otoitz beharrenak bi hizkuntzetan zekartzana. Erdararen gramatika ere bi hizkuntzetan eskaintzen zuen, euskarazko partean Larramendiren neologismoak beldur gabe erabiliz gramatikazko terminologiaren adierazteko. Beste bat Iturriagaren *Arte para aprender a hablar la lengua castellana* (1841) izan zen, aurrekoaren antzekoa. Gisa horretako eskolako liburuak Iparraldean ere egin ziren garai hartan, hala nola Lapurdin Hiriartek 1840an argitaratu zuen *Introduction à la langue française et à la langue basque*, eta Zuberoan Archuk (1852) publikatu zuen *Uskara eta franzes gramatika, uskhalerrietaco haurrentzat*.

Erran dugun bezala, liburu horiek euskara tresna didaktiko gisa baliatzen zuten oroz lehen, ikasle euskaldunak beste hizkuntza baten ikastera laguntzeko. Egoera diglosiko arruntean eskolan erdarek zuten lehentasuna eta nagusigoa ez zuten zalantzan jartzen beraz, nahiz, euskarari zegokionaz, bigarren helburuzat zeukaketen etxeko eta herriko jendarteko hizkuntza gisa zuen estatutuaren atxikitzea, eta segurenaz ere zerbait hobetzea. Konparatzen delarik Lardizabalen gramatika eskolako liburu hauekin, argi da arras beste zerbaiten aurrean gaudela.

Lehenik, Lardizabalen gramatika euskara bera erakusteko egina baitzen. Bigarrenik, erdara ongi zekitenentzat idatzia baitzen. Izan ere, Lardizabalek euskara batere ez du baliatzen azalpenen emateko eta erdara du horretarako tresna bakarra. Hitz batean, Lardizabalen gramatika Larramendirena bezala printzipioen arabera antolatua zen, adibide guti eskaintzen zuelarik, eta ez batere solasaldi elebidunik. Bestalde, Astigarraga eta Iturriagaren liburuak ez bezala, ez zen maila apaleko liburua, eta franko urrun zen ikasbide izatetik.

Aipatu lehen bi zereginen betetzeko egina izan ez bazen Lardizabalen liburu hori, hirugarren helburuaren arabera egina izan ote zen beraz, hau da, euskararen gramatika osoki erdaraz eginikako irakaskuntza baten gai gisa irakasteko? Bai, dudarik gabe; ahantzi gabe orduan euskara, teoriaran bederen, bi gisatan har bazitekeen ere, hau da ikasleen etxe hizkuntza gisa, edo monumentu hizkuntza gisa, erran nahi baitu, bi ikuspegi arras desberdinen arabera, praktikan bigarren ikuspegiak mugatzen zituela ororen buruan gramatikaren edukiak eta hartan baliatu metahizkuntza (4). Menturaz bati baino gehiagori sinesgaitz irudituko zaio hemeretzigarren mendearen erdialde horretan, kasik osoki euskalduna zen herrialdean, euskara monumentu hizkuntza gisa, mintzaira hila izan balitz bezala, eskoletan irakasteko asmorik sortzea. Bizkitartean, badira hola pentsatzera garamatzaten arrazoiak. Lehenbizikorik, horrela ulertzen da zergatik dituen liburuak dauzkan ezaugarri oinarritzakoak. Zergatik euskararari berari hain toki guti eskaini zitzaion eta zergatik Larramendiren *Arte* famatuaren antolamenduari hain hurbiletik jarraiki zitzaion Lardizabal, alta hura apologia lana izanik.

Bigarrenekorik aitzin solaseko erranek berek ere hala diote, zalantzarik toki handirik utzi gabe. Guereca aitzin solas egileak ongi azpimarratu zuen paradoxa: euskara hiltzera zegoen mementoan berean hasi nahi zuten haren gramatika eskoletan erakusten:

Tal vez parecerá extraño que se haya esperado a una época en que la lengua vascongada está casi tocando su fin, para escribir una gramática con reglas para aprenderla (Guereca in *Lardizabal* 1856: II)

Baina paradoxa gainditu nahi zuen Guerecak, erranez epe laburrean desgertzera eta osoki ahantzia izatera kondentatua zen euskara monumentu eta oroit-irakasgai gisa bederen begiratu behar zutela gipuzkoarrek:

Pero deseando la Provincia no dejar sepultar en el olvido á una lengua que ha formado y forma la base principal de la existencia social del pueblo vascongado, ha resuelto publicar la presente gramática, no como una obra perfecta del arte, sino como un monumento erijido á su memoria. (Guereca, in *Lardizabal* 1856: II)

(4) Eskolatik kanpo, hori erakusten digu XIX. mendearen hondar partetik 1978 arteko euskal gramatikagintzak ere. Garai hartan, euskal gramatikak, bai euskaldun ikasientzat eta bai erdalunentzat egiten ziren, erdaraz beraz. Hala egin zituzten beren gramatika lanak, adibidez, Ithurryk, Azkuek, Altubek edo Lafittek.

Guereca hori funtzionarioa zen eta hari egokitu zitzaien Lardizabal hil ondoan honen gramatikaren hitzurrearen idaztea. Ez dakigu zenbatetaraino haren erranek orduan herrialdearen administrazioko arduradunen artean entzun zitezkeen solas batzuen oihartzuna dakarkiguten. Ez zen beldur, hasteko, probintziaren izenean mintzatzeko (*Pero deseando la Provincia...*), osoki bere burutik ari zela adieraztera eman gabe, alderantziz baizik (5). Gainera, aitzin solasak berak erakusten duen bezala, Guereca ez zen euskararen etsaia edo kontrakoa; hots, ez da haren solasetan euskararen arbuiagarri edo mespretxagarri egiteko nahikeriarik ikusi behar: argi dauka, adibidez, monumentu bihurturik ere, mintzairak dituela euskaldunak populu gisa eratzen (*la lengua vascongada... forma la base principal de la existencia social del pueblo vascongado*).

Testu horrek badu bere garrantzia euskalaritzan: nik uste, euskararen desagertzea etorkizun hurbil batean iragarri duen lehenbiziko testua baita. Eta ustegabekoa da, zeren XIX. mendearen erdialde hartan unibertsalki euskalduna zen herrialde batez ari baitzen. Ditugun lekukotasun guziek segurtatzen ditugute euskara zela garai hartan gipuzkoarren sortzeko mintzaira. Hona adibidez, Madozek (1847: 113) zer zioen:

Se habla el vascuence en toda la prov. Es el lenguaje que en su niñez aprenden todos sus naturales, y el único que saben los que por su educación ó con el trato de gentes no han aprendido el castellano.

Velascok (1879: 483-484) ere, modu berean, zioen 1867ko zentsuan zenbatu ziren biztanleentatik %96 pasa euskaldunak zirela Gipuzkoan, eta %82 ia beti euskaraz bakarrik mintzaten zirenak:

De las 176,297 almas que poblaban Guipúcoa al realizarse ese censo [1867koa], creo bastante exacto calcular que las 170,000 hablaban el vascuence, y entre ellas las 140,000 hacian uso casi esclusivo de esa lengua en sus diarias relaciones.

Aurreko garaietan zenbait lekukotasun baditugu (lehenbizikoak Lapurdin berean XVII. mendearen lehen partean, Etcheberri Ziburukoaren garaian) erakustera ematen digutenak Euskal Herrian berean euskarak etsaiak izan zituela eta aldebat desager zedin desiratzen zutenak ere izan zirela. Berdin horrelako asmoa aurkitzen da Dithurbide bezalako Iparraldeko zenbait iraultzazale batzuen baitan (Oyharçabal 1993), baina haietan gertakizuna inondik ere ez zen agertzen Guerecak ematen zion berehalakotasun eta larritasun kolore horrekin. Humboldték berak ere aipatu zuenean, franko urrun ikusten zuen, XX.

(5) M. Zalbidek (2006) ematen digun informazioaren arabera, badirudi Guereca egiazki Diputatu Nagusiaren erranei jarraiki zitzaizela bere aitzin solasean, zeren 1853ko gutunean argiki aditzera eman baitzuen honek ez zela gramatika hori euskaldunentzat bereziki egina, baina ororenzat, denek noizbait euskaren (kanpoko) ezagutza izateko moldatua: *siendo su objeto, imprimir y publicar esta obra, para que por ella pueda un día llegar á ser conocida de los hombres una lengua tan antigua y tan poco parecida á las demas del mundo.*

mendearen hastapeneko gertatzekoa (Mitzelena 1973). Badirudi Gipuzkoan euskararen kezka areagotzearekin agertu zela euskararen osoki itzal zitekeelako kezka. Alabaina, modu argian aurkitzen da jadanik, Iturriagaren 1830eko txostenean:

Qué importa, digo, todo esto [apologisten goraiamenak], si cada día [euskara] camina con más celeridad hacia su perdición y se nos va a desaparecer totalmente? (Iturriagak, 1830eko Batzar Nagusietan aurkeztu txostenean)

Ikusten den bezala, Guerecak bere aitzin solas idatzi baino mende laurden bat lehenago jadanik, Iturriaga bezalako euskaltzaleen gogoan, hasia zen agertzen euskara epe laburrean hilen ez ote zen beldurra. Badaiteke garaiari zegokion ideia zen hau, iturburua erromantizismoak eragin errepresentazioetan zukeena: iraganetik heldu ziren kultura moldeak gorestearekin batean, iraganari betiko lotzen zituen, eta horrela, mekanikoki bezala, garaiaz kanpokoak egiten, Gipuzkoako hizkuntza egoeraren aurkezpen honetan ezin hobeki ikus daitekeen bezala (6).

Hizkuntzen heriotza eta hizkuntzalaritza naturalista

Euskara eta euskara bezalako hizkuntzen desagerpenaren inguruko teoriarazioa, ordea, piska bat geroxeago eginen zen, bereziki hizkuntzalaritza naturalista deitua izan zen eskolaren lanei esker. Vinson izan zen, baita haren ondotik, beste modu batean, Unamuno ere bai, ikupegi honen zabaltzailea euskalaritzako munduan (Oyharçabal Argit.)

Eskola hori 1860 hamarkadaren bigarren partean sortu zen (Desmet 1996). Lehen eragileak Honoré Chavée (1815-1877) eta Abel Hovelacque (1843-1896) hizkuntzalariak izan ziren, nahiz August Schleicher (1821-1868) izan zen lehenago ikusmolde horren nolabaiteko aitzindaria eta eragilea. Hizkuntzalari hau garai hartako indoeuroperaren espezialista famatuenetarik bat izan zen, teoria oso bat eratu zuena hizkuntzen eboluzioari buruz. Neurri handi batean bat zetorren haren teoria, darwinismoak izaki bizidunen eboluzioaz sortu zuen teoriarekin (Schleicher 1863), zeren haren ikuspegiaren arabera hizkuntzak ere natura izakiak baitziren, gaineratiko izaki bizidunak bezala garapen katea batean sartuak zirenak. Garapen desberdineko hizkuntzak eremu berean gertatuz gero hil-ala-biziko lehiaketa batean sartuak izanki, ahulene

(6) Badaiteke euskararen galera gisa horretan ikustea diglosia zaharreko orekan agertzen hasiak ziren aldaketen ondorioa izatea. Alabaina, kanbiamendu nabaria izan behar zen garai haietan, gaztelera gipuzkoarren artean hedatzen eta indartzen ari baitzen. Aldaketa horrek, halere, ez zuen berehala ekartzen behe-mailako hizkuntzaren desagerpena, lehenik aldi elebidun batetik iragan behar baitzen horretarako, hau laburrago edo luzeago gerta zitekeelarik. Menturaz, Iturriaga eta Guereca bezalako euskaltzaleek erdararen aitzinamendua ikustean, horrek euskararen galtzea epe labur-laburrean ekarriko zuela pentsatu izan zuten.

desagertu behar zuten nahitaez. Garapen mailak, hizkuntzen kasuan, tipologiako lanetako baliatua zen partikamen hirukoitzaren arabera egiten zen: hizkuntza isolatzaileak > hizkuntza eranskariak > hizkuntza flexiodunak.

Vinsonek, osoki bat egin zuen haste-hastetik hizkuntzalaritza naturalistaren ikusmolde eta hatsarreekin (Gomez 2006). Frantzian garai batez franko indartu zen eskola horretako eragile garrantzizkoenetarik bat izan zen, teoria mailan berak bere baitarik deus guti ekarri bazuen ere. Eskola hark ateratzen zuen aldizkariak ere (*Revue de linguistique et de philologie comparée*) euskalaritzaren historian garrantzi zerbait izan zuen, eta luzaz Vinson izan zen haren zuzendaria, baita artikulu egile emankorrena (aldizkari horrek iraun zuen urteetan, 1867-1916 artekoetan, orotara 710 artikulu argitaratu baitziren, 154 artikulu egile izanik, jakitekoa da Vinsonek berak orotara 237 idatzi zituela, erran nahi baitu hiruretarik bat). Bada, zuzen-zuzenean euskarari aplikatu zizkion Vinsonen naturalisten teoriak (ikus Vinson 1874), haurrean ikasi zuen tamil hizkuntza dravidiarrekin egin zuen bezala (7), ondorioz beste euskalari zenbaitekin haserraturaz edo behintzat liskarrak eta kalapitak sortuz (Granja 1985, Gomez 2006). Izan ere, guztiz bat egiten zuen Vinsonen hizkuntza darwinismoarekin:

Les organismes phoniques [ohart hizkuntzen deitzeko moldeari] sont des produits spontanés et inconscients des organes humains, soumis, en leur qualité d'êtres naturels [natura izakiak dira hizkuntzak, ez kultura izakiak], à la grande loi de l'éternelle variabilité (...) Les êtres linguistiques sont soumis aussi à la loi terrible de la concurrence vitale qui a fait disparaître bien des langues inconnues. (Vinson 1874)

Euskara zela-eta, argi zen Vinsonentzat, hizkuntza kondentatua zela, eta horretan bat egiten zuen Guerecak hogeitau urte lehenago erranikakoarekin:

tout indique sa [euskararen] disparition complète dans un avenir plus proche qu'on ne le pense. (Vinson 1874: 56)

Kontuan izan, Iparraldean ere (euskararen ohiko eremuaz ari gara, noski) 1870ko urteetan oraindik indarrean zela euskara. Frantsesa herritar xumeen artean sartzen hasia bazen ere, euskara zen egun orozko hizkuntza arrunta, han bizitzeko jakin beharrekoa. Baina Guerecak Gipuzkoan bezalatsu, Vinsonek ere Iparraldean euskara laster hiltzera zihola pentsatzen zuen.

Haatik, puntu batean desberdintzen bide ziren bien ikuspegiak. Duda guti da Guerecarentzat (eta areago Lardizabalentzat) ez zela berez gertakari baiko-rra edo atsegin hartzekoa, euskara gipuzkoarren ezpainetarik desagertzea. Vinsonentzat, ordean, bai, gauza ona eta poztekoa zen gauzak horrela gerta zitezen, zeren euskara hizkuntza eranskaria izanki bere garapenean bide erdi gelditu baitzen, eta ondorioz, nahitaez, hizkuntza flexiodunak zituzten zibili-

(7) Vinsonen aita Pondichéry-n izendatua izan baitzen, han egin zituen bere ikasketak Vinsonen (Lacombe 1927), eta ingeleza eta hango mintzairak (indiera eta tamila) ere ikasi (Vinson 1905).

zazioen ondoan, zibilizazio primitibo eta osatu gabe baten ekarlea baitzen. Euskarak, hitz batez, euskaldunak modernotasunean sartzetik gibelatzen zituen, eta zibilizazio-maila apal-apaleko aitzinekotasun batean atxikitzen:

Nous croyons qu'il y a plus à se féliciter qu'à se plaindre de la mort d'un idiome dont l'âge nous reporte à une époque de civilisation très-inférieure. (Vinson, idem)

Ez zen gure gaia egun Lardizabalen gramatika aipatzerakoan, Vinsonen eta haren eskolako kideen ideien eztabaidatzea. Halere, liburu hartako aitzin solas doi bat harrigarri hura irakurri ondoan, erakutsi nahi genuen Gipuzkoan mendearen erdialdean agertu ziren ideia batzuk, objektiboki orduko errealitate soziolinguistikaren arabera neurritz kanpokoak iruditzen zaizkigunak, nolabait mendeak sortu errepresentazio batzuei zegozkiela. Are gehiago, laster antropologia berriak finkatuko zituen ikusmoldeen eraginarekin, oinarri zientifiko bat ere emanen zitzaien, ondorioz, oraindik ere indartzenago baizik ez baitziren. Itxura guzieren arabera, Guerecaren solasek giro batzuetan ongi erroturik zegoen ideia baten oihartzuna dakarkigute. Nola sortu ziren errepresentazio horiek? Zer lotura izan zuten bestalde garai haietan, Estatuaren jokatibidearen aitzinean, Hegoaldean bereziki, euskal herrialdeetan nabari zen giro politiko nahasiarekin? Zer eragin izan zuten? Luzeegi lihoakiguke gorabehera horien hemen aztertzen hastea. Beste egun bateko utziko dugu kontua.

Bibliografia

- ABBADIE, ANTOINE & CHAHO, JOSEPH AUGUSTIN. 1836. *Études grammaticales sur la langue euskarienne*. Paris: A. Bertrand.
- ARCHU, JEAN-BAPTISTE. 1852. *Uskara eta franzes Gramatika, uskalherrietaco haurrentzat eguina*. Baiona: Foré eta Lasserre. 1868ko 3. argitalpenaren argitalpen faksimilea *Bi mihiren gramatika*. Donostia: Hordago, 1979.
- ASTARLOA, PABLO PEDRO. 1883. *Discursos Filosóficos sobre la lengua primitiva ó gramática y análisis razonada dela euskara ó bascuenze*. Bilbo: P. Velasco.
- ASTIGARRAGA Y UGARTE, LUIS. 1825. *Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de grámatica, para el uso de la juventud de la M. N. y M. L. provincia de Guipúzcoa, con ejemplos y parte de la doctrina cristiana en ambos idiomas*. Donostia: I. Baroja.
- BILBAO, GIDOR. 2006. *Joanes Etxeberri Sarakoaren saiakera-lanak eta latina ikasteko gramatika: edizioa eta azterketa*. EHUko doktore tesia. Ikasketak klasikoak Saila.

- CASENAVE, JON. 2006. «Dominique-Joseph Garaten *Les recherches sur le peuple primitif de l'Espagne, sur les révolutions de cette Péninsule, sur les Basques Espagnols et françois* (1811)». Transkripzioa eta oharra. *Lapurdum* XI.
- DARRIGOL, JEAN-PIERRE. u.g. [1827]. *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque, par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne*. Baiona: Duhart-Fauvet. Argitalpen faksimilea. 1979. Toulouse: Eché.
- DESMET, PIET. 1996. *La linguistique naturaliste en France (1867-1922). Nature, origine et évolution du langage*. Leuven / Paris: Peeters.
- ETCHEBERRI, JOHANES. [1712]. *Escual-Herriari eta escualdun guztiei escuarazco hatsapenac latin ikhasteco. Lehenbiciric icenen declinacinoez eta verboen conjugacinoez, azquenean icenari, eta verboari dagotzten gauçac*. Edizio kritikoa in G. Bilbao (2006).
- GARMENDIA, JOSE FRANCISCO. 1981. Inazio Lardizabal-en lan eta idazkiez eza-gutzen eztiren berri eta gauza batzuk. *Euskera* 26-2. 795-797.
- GRANJA PASCUAL, JOSÉ JAVIER. 1986. «Julien Vinson, el euskera y una polémica del XIX», *ASJU* 20:1. 217-235.
- GÓMEZ, RICARDO & LAKARRA, JOSEBA. (arg.) 1992. *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak*. (ASJUren gehigarriak. 25). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia/UPV-EHU.
- GÓMEZ, RICARDO. 2006. *XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak*. EHUko doktore tesia. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketa Saila. Vitoria/Gasteiz.
- HARRIET, MARTIN. 1741. *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*. Baiona: Fauvet Alarguna & J. Fauvet.
- HIRIART, A. 1840. *Introduction à la langue française et à la langue basque*. Baiona: V^o Cluzeau.
- ITURRIAGA, AGUSTÍN PASCUAL. 1841. *Arte de aprender a hablar la lengua castellana: para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*. Hernani.
- LACOMBE, GEORGES. 1927. «Julien Vinson». *Gure Herria*. 60-64.
- LARDIZABAL, FRANCISCO IGNACIO. 1855. *Gramática Vascongada*. Donostia: I. R. Baroja. 2. argitalpena. 2006. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- . 1856. *Testamentu Berriko Kondaira*. Tolosa: Gorosabel. 5. argitalpena. 1996. Klasikoak. 83. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.

- LARRAMENDI, MANUEL. 1729. *El imposible vencido. Arte de la Lengua bascongada*. Salamanca: A. J. Villargogo Alcaráz. Argitalpen faksimilea; 1979. Donostia: Hordago.
- LÉCLUSE, FLEURY. 1826. *Manuel de la langue basque*. Tolosa & Baiona: J. M. Douladoure & L. M. Cluzeau. J. Lakarraren 1987ko berrargitalpena in *ASJU* 21, 813-916.
- MADOZ, PASCAL. 1847. *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. 9. liburukia: Gua-Juz. Madril: i.g.
- MITXELENA, KOLDO. 1973. «Guillaume de Humboldt et la langue basque». *Lingua e stile* 8.107-125. Argitalpen berria in Gómez & Lakarra (arg.) 1992, 379-393.
- MUJKA, JOSE ANTONIO. 2006. «Lardizabalen gramatika, Larramendirenaren bertsio “didaktikoa”». In Lardizabalen (1855). Bigarren argitalpena. 2006. Atariko partean.
- OYHARÇABAL, BEÑAT. 1993. «Les documents recueillis lors des enquêtes linguistiques en Pays Basque durant la période révolutionnaire et le Premier Empire». In J. B. Orpustan (Zuzend.) *La Révolution française dans l'histoire et la littérature basques du XIXe siècle*. Baigorri: Izpegi. 63-120.
- . Argit. «Linguistique et anthropologie: la langue basque entre primitivisme et darwinisme linguistique dans le seconde partie du XIXè siècle». Baionako 2006/05/16-17ko kolokioa *Bayonne: carrefour de langues et cultures*. Aktetan argitartzekoa.
- URGELL, BLANCA. 1996. «Hitzaurrea». In Lardizabal (1856). 1996ko berrargitalpena. XV-XCIII.
- VINSON, JULIEN. 1874. «Sur la méthode de la science du langage et de ses applications à la langue basque». *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres & Arts de Bayonne*. 37-43 & 49-57.
- SCHLEICHER, AUGUST. 1863. *Die darwinshe Theorie ind die Sprachwissenschaft*, Weimar: Böhlau. Frantsesezko itzulpena, C. De Pommayrol-ek egin, *La théorie de Darwin et la science du langage*, 1868. Paris: Franck.
- VELASCO, LADISLAO & FERNANDEZ DE LA CUESTA, 1879. *Los euscaros en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya: sus orígenes, historia, lengua, leyes, costumbres y tradiciones*. Barcelona: i.g.
- VINSON, JULIEN. 1874. «Sur la méthode de la science du langage et de ses applications à la langue basque». *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres & Arts de Bayonne*. 37-43 & 49-57.
- . 1905. «Science, critique et vanité». *Revue de Linguistique et de Philologie comparée* 38. 192-207.

ZABALA, JUAN MATEO. 1848. *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*. Donostia: I. R. Baroja.

ZALBIDE, MIKEL. 2006. «Lardizabalen gramatika bere gizarte-giroan». Euskaltzaindiak Zaldibian 2006/06/30ean antolatu omenaldian irakurria. *Plaza Berri* aldizkari elektronikoa, 4. zb. <<http://www.euskaltzaindia.net>>